# EUSKADIKO EMAKUME ETA GIZONEN GIZARTE ETA POLITIKAKO PARTAIDETZARI BURUZKO ZIFRAK

## 4. TOMOA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# EUSKADIKO EMAKUME ETA GIZONEN GIZARTE ETA POLITIKAKO PARTAIDETZARI BURUZKO ZIFRAK

EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 2005

| | |
|---|---|
| **IZENBURUA (Lan osoa):** | "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak" |
| **IZENBURUA (4. Tomoa):** | "Euskadiko emakume eta gizonen gizarte eta politikako partaidetzari buruzko zifrak" |
| **EGILEA:** | EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz |
| **AUTOREAK:** | Arantxa Elizondo Lopetegi, Eva Martínez Hernández, Ainhoa Novo Arbona, Itziar Casillas de León. Genero Azterlanen taldea. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Politika eta Administrazioa Zientzien Saila |
| **IRUDI DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** | Ana Rincón |
| **ILUSTRATZAILEA:** | Iñigo Ordozgoiti |
| **DATA:** | 2005eko maiatza |
| **ALE-ZENBAKIA:** | 1.300 |
| **DESKRIBATZAILEAK (Lan osoa):** | Emakumeen egoera, gazteak, helduak, adinekoak, partaidetza politikoa, datu estatistikoak |
| **DESKRIBATZAILEAK (4. Tomoa):** | Partaidetza politikoa, gizarteko partaidetza, berdintasunerako politikak, iritzi publikoa, datu estatistikoak |
| **INPRIMAKETA:** | Gráficas Santamaría. Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz |
| **ISBN (Lan osoa):** | 84-87595-04-9 |
| **ISBN (4. Tomoa):** | 84-87595-98-7 |
| **LEGE GORDAILUA:** | VI-198/05 |

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA ........ 7

1. SARRERA ........ 11

2. HERRI BOTEREETAN HAUTETSIRIKO PERTSONAK ........ 15
   2.1. Eusko Legebiltzarra ........ 17
   2.2. Foru eta Udal Erakundeak ........ 22
   2.3. Marko erkatua ........ 30

3. HAUTESKUNDE-KANDIDATURAK ........ 33
   3.1. Autonomi, Foru eta Udal Kandidaturak ........ 35
   3.2. 2004ko Hauteskunde Orokorrak ........ 43
   3.3. Europako Parlamenturako 2004ko hauteskundeak ........ 51

4. HERRI ADMINISTRAZIOA ........ 55
   4.1. Goi-karguak ........ 57
   4.2. Herri Entitateak eta Erakundeak ........ 63
   4.3. Erakunde-arteko Batzordeak ........ 64

5. ALDERDI POLITIKOAK ETA SINDIKATUAK ........ 67
   5.1. Alderdi Politikoak ........ 69
   5.2. Sindikatuak ........ 72

6. **ESKU-HARMEN PUBLIKOA** . . . . . . . . . . 73
   - 6.1. Legebiltzarreko ekimenak . . . . . . . . . . 75
   - 6.2. Berdintasun Planak . . . . . . . . . . 80
   - 6.3. Berdintasun Kontseiluak . . . . . . . . . . 83

7. **JARRERAK ETA JOKABIDE POLITIKOA** . . . . . . . . . . 87

8. **SEXUEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO IRITZI PUBLIKOA** . . . . . . . . 97

# AURKEZPENA

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, honelaxe definitzen du aukera-desberdintasuna: emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitor lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzea, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne.

Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, gaur egun nazioarte-mailan egokienentzat jotako bi printzipio edo estrategia osagarriak definitzen ditu: genero-ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboa. Printzipio horiek aplikatzeak ekarriko du emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan desberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ez-berdintasuna ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

Aurrekoa lortzeko beharrezkoa da, besteak beste, sexukako estatistikak izatea. Izan ere, haien bidez zehatzago ezagutuko dira kolektibo bakoitzaren egoera, genero-harremanak eta berauek oraindik gure gizarte-ereduaren ezaugarri den eta sexuaren arabera hierarkizatutako gizarte-antolaketaren mantenimenduan eta eraikuntzan duten papera.

Datuak ere sentsibilizazio sozialerako baliabide indartsu dira errealitatearen eta gure inguru hurbilenean imajinatu edo antzemandako egoeraren arteko distantzia eta aldea erakusten baitituzte. Pertzepzio hori hainbat diskurtso sozialetan adierazi eta desiratutako egoeratik hurbil dago, teorikoki behintzat. Datuek berdintasunaren espejismoa deritzona ezabatzen dute. Distantzia horren kontzientzia pertsonala eta soziala beharrezko elementuak dira botere publikoen ekintza positiborako politikak ezartzea onartzeko. Politikok, batzuetan, ondoen dagoen kolektiboak, kasu honetan gizonezkoek, eskubide eta aukeren murrizketatzat hartzen du, gizarte osoaren onuratzat baino. Desberdintasunen kontzientzia sozialak exijitu eta, aldi berean, ahalbi-

detzen du ekintza politikoa. Halaber, lortu nahi den ereduranzko jokabide pertsonalen eta sozialen aldaketa sustatzen du.

Emakundek 1991.urtean argitaratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen egoerari buruzko lehenengo txostena. Harrezkero, urtero, datuak eguneratuz eta esku hartzeko sektore edo arloei buruzko informazioa sartuz joan da, administrazio publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurrien garapenean eta konpromisoan izandako aurrerapenari esker. Horren isla dira orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hiru ekintza positiboko planen urteko ebaluazioak eta ebaluazio globalak. Aurreko guztiak sexu-aldagaia estatistika-eragiketetan zein gure administrazioetako eskumeneko sailek eta atalek egindako ikerketetan sartzea ahalbidetu du.

Txostenak Eusko Legebiltzarrari aurkeztu eta hainbat komunikabideren bidez -hitzaldiak, artikuluak, web-orria, e.a.- zabaldu dira. Horietariko bat, paper-euskarridun argitalpena edo liburua, Euskadiko emakumeentzako ekintza positiboko plan bakoitzarekin batera erabili da. Orain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea egitearekin eta onartzearekin batera, beste argitalpen hau aurkezten dugu hiritarrek Legearen beraren edukiak ulertzen eta botere publikoek benetan aplikatzen lagunduko duelakoan.

Txostena, nagusiki, ikuspegi kuantitatibo batetik egin da, eta bizitzaren etapak –gaztaroa, helduaroa, 3. adina- hartu ditu oinarrizko erreferentzia, kolektibo bakoitzaren egoera espezifikoak bereizteko eta aztertzeko. Txostenaren osagarri gisa, politika-arloan emakumeek duten parte-hartzeari buruzko analisi espezifiko bat dator. Ez ditu bete nahi arestian aipatutako Legeak planteatutako estatistikak hobetzeko eskakizun guztiak, eta, zentzu honetan, emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoera ezagutzeko ekarpen garrantzitsutzat, baina partzialtzat hartu behar da. Izan ere, ezagutza horren alde kuantitatiboetan zein kualitatiboetan sakontzen jarraitu beharko da.

Berdintasunaren kontzeptuak, ezbairik gabe, biei egiten die erreferentzia. Ikuspegi kuantitatibotik, emakumeen eta gizonen banketa berdina, %50 ingurukoa, litzateke

gizarte, hezkuntza, lan, aisialdi eta boterearen arlo guztietan. Ikuspegi kualitatibotik, eremu publikoan zein pribatuan norberaren gaitasunak garatzeko eta erabakiak hartzeko askatasunari egiten dio erreferentzia, batetik; eta bestetik, emakumeen eta gizonen ezagutzak, baloreak, ekarpenak eta esperientziak, jokabideak, jomugak eta beharrizanak berdin balioesten eta sustatzen dituen gizarteari.

Berdintasuna lortzea XXI. mendearen lehenengo urte hauetan, oraindik ere, benetako erronka da munduko herrialde guztientzat, salbuespenik gabe. Argitalpen honek erronka horri tresna onekin, eta profesionaltasunik eta gogorik handienekin aurre egiten laguntzea espero dugu.

TXARO ARTEAGA ANSA

EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

# 1
# SARRERA

Zertan datza gizarte eta politika partaidetza? Nola azaltzen da partaidetza hori? Zeintzu dira gizarte zehatz bateko partaidetzaren modalitate nagusiak? Zeintzu dira politikan gehien parte hartzen dutenak? Horiek dira azken hamarkadetan egindako zenbait azterlanek helburu izan dituzten galderetako batzuk. Azterketok berriro ikusita ondorioztatu behar denez, partaidetza politikoak ez du zehaztapen argi ez adosturik. Izan ere, ia beti kontzeptu erlatibo eta aplikatua izaten da, den ikerketa zehatzeetara doitua. Alabaina, partaidetza nozio orok du oinarrian demokrazia berearen definizioa, "herriaren boterea" dela adierazten duena, alegia. Esentzia abstraktu horren ondorio da praktikako ibilera demokratikoa, botereen arteko kontrol-sistema, hainbat gizarte-eragilek, bai banakakoek bai talde-eragileek, parte hartzen duten eszenategian kokatua. Ildo horretatik, partaidetza politikoak adierazten du, taldekoa eta gizarte osoa ukitzen duena kudeatzen parte edo esku-hartzea ez ezik, talde edo erkidegotasun sentimendua edo borondatea ere.

Partaidetza politikoa era eta modu askotakoa izan liteke, baita maila eta dimentsio askotakoa ere: batetik, erakundeek ematen dizkiguten bideak ditugu (hala nola, hauteskundeetan bozkatzea, kandidatura batean aurkeztea, kargu publikoak betetzea...); bigarrenik, gizartean eragile nagusi izan diren erakundeetan parte hartzeko aukera ere badugu, betikoetan (alderdi eta sindikatuetan) zein bestelako erakunde eta elkarteetan; eta, hirugarrenik, banaka zein taldeka beste ekintza batzuk burutzeko aukera dugu, herri botereek erabakiak hartzeko orduan, zuzenean zein zeharka, eragina izateko. Gainera, azken hamarkadetan, herritarrek parte hartzeko prozedurak ugaldu egin dira, batez ere, eztabaidatzeko eta hausnartzeko foroak sortzeko, bai antolatutako eragileei begira, bai, orokorrean, herritarrei begira.

Partaidetza mota asko dago, eta bakoitzak eskatzen duen inplikazio maila ere ez da berdina. Gizarteak politikan izan dezakeen eragina ez da beti modu berean gauzatzen, hainbat arrazoirengatik, baina esan daiteke gizarteko kideen artean dauden ezberdintasun sozialak eta ekonomikoak islatzen direla gauzatze horretan. Pertsonek baliabide ezberdinak (ezagutzezkoak, denbora izatekoak, norberaren trebetasunak, harremanak...) dituzte. Horrek zuzeneko eragina du beraien jarduera politikoan. Ildo

horretatik, ikerketa askoren bitartez zehaztu gura dira politikan parte hartzen dutenen profila eta ezaugarri zehatzak. Horrela, partaidetza mailaren arabera kategoriak egin eta partaidetzaren eta hainbat aldagairen arteko erlazioa azpimarratu beharra dago. Aldagai horien artean adina, ikasketa maila, lanbide posizioa eta sexua daude.

Hain zuzen ere, azken hamarkadetan gertatutako aldaketak gorabehera, ikerketarik gehienen arabera, sexua jarduera politikoarekin zerikusia duen funtsezko aldagaia da oraindik: gizonak aktiboagoak dira, eta ezaugarri hori politikan parte hartzeko modu ia guztietan errepikatzen da. Esan dezakegunez, emakumeak hainbat gizarte eta ekonomi eremutan baztertuak izanak eta tradizioz esleitu zaizkien zereginetan jarduteak haiei bizitza politikoan oraintsura arte parte hartzea eragotzi edo oztopatu die, baita, neurri handi batean, egun ere.

Baina nola islatzen da emakumeak duela zenbait hamarkadatara arte debekatu zaizkien eremu politikoetan sartzea? Txosten honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE aurrerantzean) gizon eta emakumeen politikako partaidetzako ezberdintasuna islatzea da. Horretarako zenbait adierazkari kuantitatibo bildu beharra dago. Adierazleok hiru maila edo dimentsiotan sailkatu daitezke: lehenik, gizon eta emakumeen proportzioa ordezkaritza-erakundeetan, hauteskunde-kandidaturetan, administrazioan, alderdietan eta sindikatuetan; bigarrenik, sexuen arteko berdintasunaren arloan herri erakundeen jarduketa eta esku-harmena (legebiltzarreko ekimenak, berdintasun-planak eta udal erakundeen ekimenak); eta, azkenik, politika arloan gizon eta emakumeek dituzten ohiko jarrera eta jokabideei buruzko datuak eta berdintasunaren garrantziari buruzko iritzi publikoa.

# 2

# HERRI BOTEREETAN HAUTETSIRIKO PERTSONAK

# EUSKO LEGEBILTZARRA 2.1

Erakunde politiko ia guztietan ikusitako joera berari jarraiki, Eusko Legebiltzarrean gero eta emakume gehiago aritu dira azken urteetan. Egun, Legebiltzarreko aulkien herena baino gehiago (%37,3) emakumeek beteta dago. Gainerakoa (%62,7) gizonek beteta dago. Haiek datozen Lurralde Historikoa kontutan hartuta, 28 emakumeetarik 10 Araban, 7 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan hautetsi dira.

**2.1. TAULA Eusko Legebiltzarreko gizon eta emakumeak Lurralde Historikoka. 2004**

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| Araba | 10 | 40,0 | 15 | 60,0 | 25 |
| Bizkaia | 7 | 28,0 | 18 | 72,0 | 25 |
| Gipuzkoa | 11 | 44,0 | 13 | 56,0 | 25 |
| **GUZTIRA** | **28** | **37,3** | **47** | **62,7** | **75** |

ITURRIA: Eusko Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzuaren datuak abiapuntu hartuta guk egina.
<parlamento.euskadi.net>

Eusko Legebiltzarra egun osatzen duten indar politikoak kontutan hartuta, bere legebiltzarreko taldean ehuneko emakumerik gehien duen alderdi politikoa PSE da, 6 emakume (%46,2), eta 7 gizon dituena. Bigarren talderik ugariena da, EAJ, bere aulkietan 13 emakume (%39,4) eta 20 gizon dituena. Portzentajerik txikiena %28,6koa da eta Sozialista Abertzaleak taldeari dagokio, hauteskundeetan EH bezala aurkeztuari, alegia.

**2.1. GRAFIKOA** **Eusko Legebiltzarreko gizon eta emakumeak alderdi politikoaren arabera. 2004**




ITURRIA: Eusko Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzuaren datuak abiapuntu hartuta guk egina. <parlamento.euskadi.net>

Ildo horretatik ikusitako bilakaerari buruz nabarmentzekoa denez, gero eta emakume gehiago izan dira 1980az geroztik pasatutako VII legealdietan zehar finkatutako talde politikoetan. Bereziki 1994ko hauteskundeetan aldaketa handia ikusi zen Legebiltzarreko talde ia guztietako sexuen arteko proportzioan. Kasu ia guztietan, berori emakumeen %25etik gorakoa da.

**2.2. TAULA Emakume eta gizonen Eusko Legebiltzarreko presentziaren bilakaera alderdi politikoka. Portzentaje horizontalak (1980-2001)**

| | 1980 | | 1984 | | 1986 | | 1990 | | 1994 | | 1998 | | 2001 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | E % | G % | E % | G % | E % | G % | E % | G % | E % | G % | E % | G % | E % | G % |
| PNV | 12,0 | 88,0 | 15,6 | 84,4 | 11,8 | 88,2 | 27,3 | 72,7 | 27,3 | 72,7 | 28,6 | 71,4 | -- | -- |
| PNV/EA | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | 39,4 | 60,6 |
| EA | -- | -- | -- | -- | 30,8 | 69,2 | 11,1 | 88,9 | 37,5 | 62,5 | 16,7 | 83,3 | -- | -- |
| HB-EH-SA | 9,1 | 90,9 | 9,1 | 90,9 | 15,4 | 84,6 | 15,4 | 84,6 | 36,4 | 63,6 | 28,6 | 71,4 | 28,6 | 71,4 |
| EE | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 | 11,1 | 88,9 | 33,3 | 66,7 | -- | -- | -- | -- | -- | -- |
| PSE -EE | 0,0 | 100,0 | 5,3 | 94,7 | 5,3 | 94,7 | 12,5 | 87,5 | 25,0 | 75,0 | 35,7 | 64,3 | 46,2 | 53,8 |
| IU-EB | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 | 16,7 | 83,3 | 0,0 | 100,0 | 33,3 | 66,7 |
| PP | 0,0 | 100,0 | 14,3 | 85,7 | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 | 31,2 | 68,8 | 31,6 | 68,4 |
| CDS | 0,0 | 100,0 | -- | -- | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 | -- | -- | -- | -- | -- | -- |
| UA | -- | -- | -- | -- | -- | | 66,7 | 33,3 | 20,0 | 80,0 | 50,0 | 50,0 | -- | -- |
| **GUZTIRA** | **6,7** | **93,3** | **10,7** | **89,3** | **13,3** | **86,7** | **20,0** | **80,0** | **24,0** | **76,0** | **29,3** | **70,7** | **37,3** | **62,7** |

-- Ez du kandidaturarik aurkeztu.

ITURRIA: Arantxa Elizondoren azterketatik abiaturiko elaborazio propioa (1999): *Emakumeen Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoetako presentzia*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz eta Eusko Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzua. <parlamento.euskadi.net>

Eusko Legebiltzarraren barneko antolakuntzan nabarmendu behar da Mahaiaren osaketa, bertan daudenen sexuaren arabera. Orain arte, ezein emakume ez da Ganberako buru izan, bik bigarren buruordearen kargua bete dute (lehenengo eta seigarren legealdietan) eta sei izan dira idazkari (lehenengoa edo bigarrena). Bozeramale Batzan ia ez da emakumezkorik izan. Izan ere, bi bakarrik izan dira bertako kide. Kopuru hori ez da bertako kide guztien %3 ere. Legebiltzarreko lana egituratzen den batzordeei dagokienez, 19 emakume izan dira buru legealdi guztietan finkatutako 103etarikoren batean, hau da, %18,4.

## 2.3. TAULA Eusko Legebiltzarrean karguak izan dituzten emakumeak, legealdien arabera

| EMAKUME KOP. | I. LEGEALDIA | II. LEGEALDIA | III. LEGEALDIA | IV. LEGEALDIA | V. LEGEALDIA | VI. LEGEALDIA | VII. LEGEALDIA | GUZTIRA | EMAKUME PORTZENTAJEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Legebiltzarreko Mahaia** | **5** | **5** | **5** | **5** | **5** | **5** | **5** | **35** | |
| Burutza | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| 1. Buruordetza | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| 2. Buruordetza | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 2 | 28,6 |
| 1. Idazkaritza | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 2 | 28,6 |
| 2. Idazkaritza | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 1 | 4 | 57,1 |
| **Bozeramale Batza** | **7** | **11** | **11** | **11** | **10** | **9** | **9** | **68** | |
| Emakume kop. | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 2 | 2,9 |
| **Batzordeak** | **18** | **15** | **13** | **14** | **13** | **15** | **15** | **103** | |
| Burutza | 2 | 1 | 0 | 2 | 3 | 5 | 6 | 19 | 18,4 |
| Buruordetza | 2 | 2 | 2 | 1 | 2 | 4 | 5 | 18 | 17,5 |
| Idazkaritza | 0 | 3 | 1 | 2 | 6 | 7 | 7 | 28 | 27,2 |

ITURRIA: Zubero, Agurtzane. 2003. *Ba al dago ezberdintasunik Eusko Legebiltzarreko gizon eta emakumeen lan politikoan?* Gizon eta Emakumeen Berdintasuneko Master-tesina, EHU.

Legealdi guztietan izan diren batzordeen sexukako osaketa lasaitasun handiagoz aztertzen badugu, ikus dezakegu ezen emakumeen presentziarik txikiena Presako Legegintza, Araudi eta Gobernurako Batzordeari dagokio, zein Eusko Legebiltzarraren Araudiak ezarritako derrigorrezko batzorde bietako bat baita. Batzorde hori Legebiltzarra ibiltzeko funtsezko elementua da eta barne araubideari buruzko gaien gaineko erabakiak hartzen ditu, Ganberaren aurrekontu proiektua aztertu eta onesten du, aurrekontuaren burutzapena kontrolatzen du eta Aldundi Iraunkorrean osatzen da. Organo horrek Legebiltzarra bilkuren aldietatik kanpo edo legealdiarteko aldietan egonez gero jarduten du. Beste muturrean, emakume gehiago egon dira Hezkuntza eta Kultura Batzordean, Giza Eskubideen Batzordean, Bateraezintasunen Batzordean (Eusko Legebiltzarraren Araudiaren arabera derrigorrezkoa den beste batzordean) eta herri komunikabideak kontrolatzeko Batzordea. Halaber, nabar-

mentzekoa denez, emakume asko daude 1998an hasitako seigarren legealdian sortutako Emakume eta Gazteriaren Batzordean: 13 emakumezko legealdi horretan eta 15 egungoan.

## 2.4. TAULA Eusko Legebiltzarreko batzordeetako emakumeak, legealdien arabera

| BATZORDEAK | I. LEGEALDIA | II. LEGEALDIA | III. LEGEALDIA | IV. LEGEALDIA | V. LEGEALDIA | VI. LEGEALDIA | VII LEGEALDIA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Erakundeak eta Herrizaingo Saila | 0 | 0 | 3 | 4 | 8 | 6 | 6 | 27 |
| Ekonomia, Ogasuna eta Aurrekontuak | 1 | 1 | 1 | 4 | 3 | 3 | 5 | 18 |
| Industria eta Nekazaritza | 0 | 0 | 2 | 3 | 7 | 6 | 6 | 24 |
| Nekazaritza eta Arrantza | - | - | 0 | 2 | 2 | - | - | 4 |
| Industria eta Turismoa | - | 0 | - | - | - | 3 | 6 | 9 |
| Hezkuntza eta Kultura | 3 | 3 | 7 | 10 | 9 | 6 | 10 | 48 |
| Lan eta Gizarte Ongizatea | 2 | 3 | - | - | - | 6 | 10 | 21 |
| Lan eta Osasuna | - | - | 5 | 9 | 13 | - | - | 27 |
| Presako Legegintza, Araudi eta Gobernua | 1 | 0 | 3 | 2 | 4 | 3 | 2 | 15 |
| Bateraezintasunak | 0 | 3 | 5 | 3 | 10 | 11 | 7 | 39 |
| Giza Eskubideak | 2 | 5 | 7 | 6 | 9 | 7 | 9 | 45 |
| Komunikabideak kontrolatzea | 1 | 2 | 2 | 4 | 9 | 9 | 9 | 36 |
| Zuzenbide Zibila eta Foru Zuzenbidea | 1 | 1 | 0 | 4 | - | 0 | - | 6 |
| Eskumen-transferentziak | - | - | - | 3 | - | - | - | 3 |
| Europako Arazoak eta Kanpo Ekintza | - | - | - | - | 8 | 5 | 5 | 18 |
| Osasuna | - | - | - | - | - | 13 | 9 | 24 |
| Emakumea eta Gazteria | - | - | - | - | - | 13 | 15 | 28 |
| Droga-mendekotasunen politika | - | 4 | 0 | 5 | 8 | - | - | 17 |
| Bestelakoak | 9 | 6 | - | 2 | 2 | - | 2 | 21 |

ITURRIA: Zubero, Agurtzane. 2003. *Ba al dago ezberdintasunik Eusko Legebiltzarreko gizon eta emakumeen lan politikoan?* Gizon eta Emakumeen Berdintasuneko Master-tesina, EHU.

# FORU ETA UDAL ERAKUNDEAK 2.2

Eusko Legebiltzarrean bezala, foru erakundeetan ere emakumeak gehiagotu dira eta beraien erakundeotako presentzia egun %30,1ekoa da hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietan. Lurraldeak kontutan hartuta, Araban eta Gipuzkoan portzentajea %25 ingurukoa da; eta Bizkaian, %41,2koa.

**2.5. TAULA Hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako hautetsirikoak, sexuaren arabera. 2003**

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| Araba | 13 | 25,5 | 38 | 74,5 | 51 |
| Bizkaia | 21 | 41,2 | 30 | 58,8 | 51 |
| Gipuzkoa | 13 | 25,5 | 38 | 74,5 | 51 |
| **GUZTIRA** | **47** | **30,1** | **107** | **69,9** | **153** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa. http://elecciones.alava.net, http://elecciones.bizkaia.net, http://elecciones.gipuzkoa.net.

Datuok alderdi politikoka eta Lurralde Historikoka banakatzen baditugu, Arabako kasuan EAJko talde batzarkideak agertzen du emakume-proportziorik handiena (19tarik 6); Bizkaikoan, PP-ko taldeak (10etarik 5); eta Gipuzkoakoan, PSE-EEko taldeak (12tarik 4).

## 2.6. TAULA Arabako Batzar Nagusietarako hautetsirikoak, alderdi eta sexuaren arabera. 2003

| | AULKIAK | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV/EA | 19 | 6 | 13 |
| PP | 16 | 3 | 13 |
| PSE-EE | 12 | 3 | 9 |
| EB-IU | 3 | 1 | 2 |
| UA | 1 | 0 | 1 |
| **GUZTIRA** | **51** | **13** | **38** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa. http://elecciones.alava.net

## 2.7. TAULA Bizkaiko Batzar Nagusietarako hautetsirikoak, alderdi eta sexuaren arabera. 2003

| | AULKIAK | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV/EA | 27 | 10 | 17 |
| PP | 10 | 5 | 5 |
| PSE-EE | 11 | 5 | 7 |
| EB-IU | 3 | 1 | 2 |
| **GUZTIRA** | **51** | **21** | **30** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa. http://elecciones.bizkaia.net

**2.8. TAULA Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautetsirikoak, alderdiaren eta sexuaren arabera. 2003**

| | AULKIAK | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV/EA | 27 | 7 | 20 |
| PP | 8 | 2 | 6 |
| PSE-EE | 12 | 4 | 8 |
| EB-IU | 3 | 0 | 3 |
| Aralar | 1 | 0 | 1 |
| **GUZTIRA** | **51** | **13** | **38** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa. http://elecciones.gipuzkoa.net

Gero eta emakume gehiago sartu dira udal erakundeetan autonomi erregimena ezarri ondoren lehenengo hauteskundeez geroztik: 1979an % 7 emakumezko zinegotzi egon ziren, eta 2003an egindako azken toki hauteskundeetan % 28,4. Lurralde Historikoka, egun 100eko emakumezko zinegotzirik gehienak Bizkaian (%30) daude, eta gutxienak Araban (%24).

**2.9. TAULA EAEko Udaletako emakumezko zinegotzien kopuruaren 1979 eta 2003 bitarteko bilakaera. Portzentajeak**

| | 1979 | 1983 | 1987 | 1991 | 1995 | 1999 | 2003 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **2.428** | **2.452** | **2.505** | **2.539** | **2.262** | **2.540** | **2.511** |
| Emakumeak | 170 | 201 | 295 | 407 | 512 | 690 | 713 |
| % Emakumeak | 7,0 | 8,2 | 11,8 | 16,0 | 22,6 | 27,2 | 28,4 |

ITURRIA: Arantxa Elizondoren azterketatik abiaturiko elaborazio propioa (1999): *Emakumeen Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoetako presentzia.* Eusko Jaurlaritza, Gasteiz eta 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuak http://elecciones.alava.net, http://elecciones.bizkaia.net, http://elecciones.gipuzkoa.net.

## 2.2. GRAFIKOA EAEko Udaletako emakumezko eta gizonezko zinegotzien kopuruaren 1979 eta 2003 bitarteko bilakaera. Kopuru absolutuak




ITURRIA: Arantxa Elizondoren azterketatik abiaturiko elaborazio propioa (1999): Emakumeen Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoetako presentzia. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz eta 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuak http://elecciones.alava.net, http://elecciones.bizkaia.net, http://elecciones.gipuzkoa.net.

## 2.10. TAULA EAEko udaletan zinegotzi hautetsirikoak sexuaren arabera. 2003

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| Araba | 91 | 24 | 287 | 76 | 378 |
| Bizkaia | 355 | 30 | 830 | 70 | 1.185 |
| Gipuzkoa | 267 | 28 | 681 | 72 | 948 |
| **GUZTIRA** | **713** | **28,4** | **1.798** | **71,6** | **2.511** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa. http://elecciones.alava.net, http://elecciones.bizkaia.net, http://elecciones.gipuzkoa.net.

Nabarmentzekoa denez, sexu bion arteko aldea oso igo da alkatetzetan. EAEko alkate andreen portzentajea %14,8koa da, ikusi dugun bezala %28,4koa den zinegotzigo guztiei begirako portzentajea baino askoz txikiagoa dena. Alkate andrea duten 37 udalerrien tamaina kontutan hartuta, ikusi dugu ezen txikienen kategorian emakumeak % 20,9 udaletan daudela alkate gisa. Portzentajerik handiena 1.000 eta 5.000na biztanle bitarteko udalerrien kategoriari dagokio (%47,8). Udalerririk handienetan (10.000na biztanletik gorakoetan, % 9,8 udalek bakarrik dute alkate andrea. Osotasunean, alkate-udalburu andrea duten udalerriek guztira 135.552 biztanle dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden 2.083.587etarik, hau da, EAEko biztanleen %6,5 bakarrik dute.

**2.11. TAULA EAEko Udaletan alkate diren emakumeak Lurralde Historikoka eta udalerrien tamainaren arabera. 2004**

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | EAE | |
|---|---|---|---|---|---|
| BIZTANLEAK | ABS. | ABS. | ABS. | ABS. | % |
| 500na biztanletik behera | 5 | 4 | 5 | 14 | 20,9 |
| 500-1.000 | 1 | 2 | 0 | 3 | 4,1 |
| 1.000-5.000 | 2 | 4 | 5 | 11 | 47,8 |
| 5.000-10.000 | 0 | 1 | 4 | 5 | 21,7 |
| 10.000na biztanletik gora | 0 | 0 | 4 | 4 | 9,8 |
| **GUZTIRA** | **8** | **11** | **18** | **37** | **14,8** |

ITURRIA: 2004ko azaroaren 24an eguneraturik dauden Eudelen web orrialdeko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa (http://www.eudel.es).

Alderdi politikoek EAEko udalerrietan lorturiko zinegotzigoen sexukako osaketak PSE-EEko emakumeen %32,6tik IU-EBko %18eraino aldatzen diren portzentajeak erakutsi ditu.

## 2.12. TAULA EAEko udaletan zinegotzi hautetsirikoak, alderdiaren eta sexuaren arabera. 2003

| ALDERDI EDO KANDIDATURA | GUZTIRA | EMAKUMEAK KOP | EMAKUMEAK % | GIZONAK KOP | GIZONAK % |
|---|---|---|---|---|---|
| EA | 103 | 29 | 28,1 | 74 | 71,9 |
| EAJ/PNV | 548 | 158 | 28,8 | 390 | 71,2 |
| EAJ-PNV/EA | 924 | 256 | 27,7 | 668 | 72,3 |
| EB/IU | 39 | 7 | 18,0 | 32 | 82,0 |
| EB-IU | 37 | 9 | 24,3 | 28 | 75,7 |
| PP | 222 | 65 | 22,8 | 157 | 77,2 |
| PSE-EE | 285 | 93 | 32,6 | 192 | 67,4 |
| Beste batzuk | 353 | 96 | 27,2 | 257 | 72,8 |

ITURRIA: http://elecciones.bizkaia.net, http://elecciones.gipuzkoa.net, http://elecciones.alava.net

Zinegotzigoetako gizon eta emakumeen portzentajeek, hiru Lurralde Historikoetan alderdi politikoa kontutan harturik, indar politikoen arteko aldakuntza handiak azaltzen dituzte. Horrela, zinegotzi andreen portzentajerik txikiena Gipuzkoako IU-EBkoa da (%17,1ekoa soilik). Handiena (ia %40) lurralde horretako PP-k agertzen du. Alabaina, alderdi horrek Araban % 20,2 emakume bakarrik ditu bere zinegotzigoetan.

## 2.13. TAULA Araban zinegotzi hautetsirikoak, alderdiaren eta sexuaren arabera. 2003

| | ZINEGOTZIGOAK | EMAKUMEAK KOP | EMAKUMEAK % | GIZONAK KOP | GIZONAK % |
|---|---|---|---|---|---|
| EAJ/PNV | 219 | 56 | 25,6 | 163 | 74,4 |
| PP | 84 | 17 | 20,2 | 67 | 79,8 |
| PSE-EE | 34 | 9 | 26,5 | 25 | 73,5 |
| EB-IU | 4 | 4 | 25,0 | 3 | 75,0 |
| Beste batzuk | 37 | 8 | 21,6 | 29 | 78,4 |
| **GUZTIRA** | **378** | **91** | **24,0** | **287** | **76,0** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa. http://elecciones.alava.net

## 2.14. TAULA Bizkaian zinegotzi hautetsirikoak, alderdiaren eta sexuaren arabera. 2003

| | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ZINEGOTZIGOAK | KOP. | % | KOP. | % |
| EA | 80 | 22 | 27,5 | 58 | 72,5 |
| EAJ/PNV | 510 | 148 | 29,0 | 362 | 71,0 |
| EAJ-PNV/EA | 190 | 61 | 32,1 | 129 | 67,9 |
| PP | 68 | 20 | 29,4 | 48 | 70,6 |
| PSE-EE | 86 | 24 | 27,9 | 62 | 72,1 |
| EB-IU | 28 | 7 | 25,0 | 21 | 75,0 |
| Beste batzuk | 223 | 73 | 32,7 | 150 | 67,3 |
| **GUZTIRA** | **1.185** | **355** | **30,0** | **830** | **70,0** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa. http://elecciones.bizkaia.net

## 2.15. TAULA Araban zinegotzi hautetsirikoak, alderdiaren eta sexuaren arabera. 2003

| | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ZINEGOTZIGOAK | KOP. | % | KOP. | % |
| EA | 22 | 7 | 31,8 | 15 | 68,2 |
| EAJ/PNV | 38 | 10 | 26,3 | 28 | 73,7 |
| EAJ-PNV/EA | 476 | 126 | 26,5 | 350 | 73,5 |
| PP | 53 | 21 | 39,6 | 32 | 60,4 |
| PSE-EE | 130 | 45 | 34,6 | 85 | 65,4 |
| EB-IU | 35 | 6 | 17,1 | 29 | 82,9 |
| Beste batzuk | 194 | 52 | 26,8 | 142 | 73,2 |
| **GUZTIRA** | **948** | **267** | **28,2** | **681** | **71,8** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa. http://elecciones.gipuzkoa.net

EAEko hiru hiriburuetako Udalei buruzko datuek erakusten dutenez, ehuneko emakumezko zinegotzi gehiago sartu dira gainerako udaletan baino. Kasu horretan portzentajeak honakook dira: %34,5 Bilbon eta %37na Donostian eta Gasteizen.

**2.16. TAULA EAEko hiru hiriburuetako udaletan hautetsiriko pertsonak alderdi eta sexuka. 2003**

| | BILBO | | | DONOSTIA | | | VITORIA-GASTEIZ | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ZIN. | EMAKUMEAK | GIZONAK | ZIN. | EMAKUMEAK | GIZONAK | ZIN. | EMAKUMEAK | GIZONAK |
| EAJ-PNV/EA | 13 | 3 | 10 | 9 | 2 | 7 | 9 | 3 | 6 |
| PP | 8 | 3 | 5 | 7 | 3 | 4 | 9 | 3 | 6 |
| PSE-EE | 5 | 2 | 3 | 10 | 4 | 6 | 7 | 3 | 4 |
| EB-IU | 3 | 2 | 1 | 1 | 1 | 0 | 2 | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **29** | **10** | **19** | **27** | **10** | **17** | **27** | **10** | **17** |
| | | **%34,5** | **%65,5** | | **%37** | **%63** | | **%37** | **%63** |

ITURRIA: http://elecciones.bizkaia.net, http://elecciones.gipuzkoa.net, http://elecciones.alava.net

Azkenik, 2004ko martxoan egindako azken hauteskunde orokorren emaitzekin bat etorririk, EAEko biztanleen ordezkari gisa hautetsiriko pertsonak honelaxe daude banaturik: 6 emakumek eta 13 gizonek Kongresuan aulkiak betetzen dituzte, eta Senatuan 3 emakumeak eta 9 gizonek.

**2.17. TAULA Kongresurako hautetsirikoak Lurralde Historikoka eta sexuaren arabera. 2004**

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| Araba | 1 | 25,00 | 3 | 75,00 | 4 |
| Bizkaia | 3 | 33,33 | 6 | 66,66 | 9 |
| Gipuzkoa | 2 | 33,33 | 4 | 66,66 | 6 |
| **GUZTIRA** | **6** | **31,57** | **13** | **68,42** | **19** |

ITURRIA: www.congreso.es

**2.18. TAULA Senaturako hautetsirikoak Lurralde Historikoka eta sexuaren arabera. 2004**

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| Araba | 1 | 25 | 3 | 75 | 4 |
| Bizkaia | 1 | 25 | 3 | 75 | 4 |
| Gipuzkoa | 1 | 25 | 3 | 75 | 4 |
| **GUZTIRA** | **3** | **25** | **9** | **75** | **12** |

ITURRIA: www.senado.es

## MARKO ERKATUA 2.3

Aurretik aipaturiko datuak ondo ulertzea errazteko, erkaturiko marko zabalagoan jarri ahal ditugu, beste ordezkaritza-erakunde batzuetako emakumeen presentzia kontutan harturik. Adibidez, emakumeak Europako Parlamenturako 2004ko ekaineko oraintsuko hauteskundeetan lorturiko Estatuaren ordezkarien herenak dira. 2004ko martxoko hauteskunde orokorren ostean Kongresua eta Senatua %32,6 eta %24,3 emakumek osaturik daude, hurrenez hurren. Portzentajerik handiena parlamentu autonomikoei dagokie beren osotasunean (aulkien %36). Udaletan zinegotzi guztietarik % 27,3 dira emakumeak.

**2.19. TAULA** **Emakumeak eta gizonak Espainiako ordezkaritza politikoko karguetan. 2004. Kopuru absolutuak eta portzentaje horizontalak**

| | AULKIAK GUZTIRA | EMAKUMEAK | % EMAKUMEAK | GIZONAK | % GIZONAK |
|---|---|---|---|---|---|
| Europako Parlamentua (Estatuaren ordezkaritza) | 64 | 22 | 34,4 | 42 | 65,6 |
| Kongresua | 350 | 114 | 32,6 | 236 | 67,4 |
| Senatua | 259 | 63 | 24,3 | 196 | 75,7 |
| Parlamentu autonomikoak | 1.169 | 421 | 36,0 | 748 | 64,0 |
| Udalak | 65.827 | 17.971 | 27,3 | 47.856 | 72,7 |
| **GUZTIRA** | **67.669** | **18.591** | **27,5** | **49.078** | **72,5** |

ITURRIA: Feministen Politikako Foruma <www.democraciaparitaria.com>

Estatuko udal erakundeetako emakumeen proportzioa xehetasun handiagoz kontutan hartzen baditugu, ikus dezakegu ezen argi betetzen dela proportzio hori alkatetzetan zinegotzigoetan baino askoz txikiagoa izateko joera. Zinegotzi eta alkate diren emakumeen portzentajerik handiena Madrilgo Erkidegoari dagokio (%35,6 eta %17,9, hurrenez hurren); eta txikiena Galiziari (%20,1 eta %4,4). EAE 10. postuan dago emakumezko zinegotzien proportzioari begira, baina hiru Autonomi Erkidegok bakarrik gainditzen dute emakumezko alkateen portzentajean: Madrilgo Erkidegoak, Gaztela eta Leonek eta Asturiasek.



**2.20. TAULA** **Zinegotzi eta alkate diren emakumeen portzentajea Autonomia Erkidegoka. 2003**

| AUTONOMIA ERKIDEGOA | ZINEGOTZI EMAKUMEEN % | ALKATE EMAKUMEEN % |
|---|---|---|
| Andaluzia | 32,1 | 12,6 |
| Aragoi | 23,4 | 11,6 |
| Asturias | 30,2 | 14,1 |
| Balearrak | 30,1 | 8,9 |
| Kanariak | 30,9 | 10,3 |
| Kantabria | 23,6 | 6,9 |
| Gaztela-Mantxa | 31,3 | 13,0 |
| Gaztela eta Leon | 21,4 | 15,7 |
| Katalunia | 24,2 | 10,4 |
| Extremadura | 28,2 | 12,3 |
| Galizia | 20,1 | 4,4 |
| Madril | 35,6 | 17,9 |
| Nafarroa | 27,4 | 12,1 |
| Euskal Autonomia Erkidegoa | 28,6 | 13,2 |
| Murtzia | 34,0 | 8,9 |
| Errioxa | 26,2 | 12,1 |
| Balentzia | 31,4 | 12,7 |
| Ceuta eta Melilla | 30,0 | 0,0 |
| **GUZTIRA** | **27,3** | **12,4** |

ITURRIA: Feministen Politikako Forma <www.democraciaparitaria.com>

# 3

# HAUTESKUNDE-
# -KANDIDATURAK

# AUTONOMI, FORU ETA UDAL KANDIDATURAK 3.1

Erakunde maila bakoitzari begira egindako azken hauteskunde-deialdietan aurkezturiko kandidaturek erakusten dutenez, emakumeen portzentajerik handiena Eusko Legebiltzarrerako 2001eko hauteskundeei dagokie: 375 kandidaturetarik 157 emakume guztira, hau da, %41,9. Datuok, alderdi politiko eta lurralde historikoka azterturik, zenbait ondorio interesgarri atera ahal dira. Gizonak aurkeztu zerrenda ia guztietan (EH-koetan izan ezik) gehienak, baina sexu bion ordezkaritza-portzentajeak askoz hurbilago daude ordezkaritzako beste erakunde maila batzuetan baino. Egin-eginean ere, hiru zerrendatan bakarrik da emakumeen portzentajea %40tik beherakoa: Bizkaiko eta Arabako EAJ/EA-ko zerrendetan eta Arabako Alderdi Popularrekoan. Beste alde batetik, zerrendarik parekideenak PSEE-EEk Bizkaian, EB-IUk Gipuzkoan eta EH-k hauteskunde-barruti guztietan aurkezturikoak dira. Azkenik, aurkeztutako hamabost zerrendetatik, hiruk baizik ez zuten emakume bat zerrenda-buru.

**3.1. TAULA Eusko Legebiltzarrerako 2001eko kandidaturen osaketa, Lurralde Historikoka, sexuaren eta alderdi politikoaren arabera**

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | ZERRENDA- BURUA |
|---|---|---|---|
| **ARABA** | | | |
| EAJ-PNV/EA | 7 | 18 | Gizona |
| EB-IU | 10 | 15 | Emakumea |
| EH | 12 | 13 | Gizona |
| PP | 7 | 18 | Gizona |
| PSE-EE | 11 | 14 | Gizona |
| GUZTIRA | 47 | 78 | 4 gizon |
| | %37,6 | %62,4 | Emakume 1 |
| **BIZKAIA** | | | |
| EAJ-PNV/EA | 7 | 18 | Gizona |
| EB-IU | 10 | 15 | Gizona |
| EH | 13 | 12 | Emakumea |
| PP | 11 | 14 | Gizona |
| PSE-EE | 12 | 13 | Gizona |
| GUZTIRA | 53 | 72 | 4 gizon |
| | %42,4 | %57,6 | Emakume 1 |
| **GIPUZKOA** | | | |
| EAJ-PNV/EA | 11 | 14 | Gizona |
| EB-IU | 12 | 13 | Gizona |
| EH | 13 | 12 | Gizona |
| PP | 10 | 15 | Emakumea |
| PSE-EE | 11 | 14 | Gizona |
| GUZTIRA | 57 | 68 | 4 gizon |
| | %45,6 | %54,4 | Emakume 1 |
| **EAE GUZTIRA** | **157** | **218** | **12 gizon** |
| | **%41,9** | **%58,1** | **3 emakume** |

ITURRIA: Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako kandidaturei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa, 2001eko apirilaren 11ko 71 zenbakiko EHAAko zerrenden arabera.

Oharra: Kopuruak legebiltzarreko ordezkaritza lortu zuten alderdi politikoei buruzkoak dira.

2003ko maiatzaren 25eko foru eta udal hauteskundeetarako kandidaturetako gizon eta emakumeen proportzioari buruzko datuak antzekoak dira: Batzar Nagusietarako kandidaturetan emakumeak zerrendetako guztirakoaren %39,5 izan ziren; eta udal hauteskundeetarakoetan, %34,9.

**3.2. TAULA Hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskunde-zerrendetako hautagaiak sexuaren arabera. 2003**

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | KOP | % | KOP | % | |
| Araba | 142 | 35,6 | 257 | 64,4 | 399 |
| Bizkaia | 165 | 40,3 | 244 | 59,7 | 409 |
| Gipuzkoa | 173 | 42,5 | 234 | 57,5 | 407 |
| **GUZTIRA** | **480** | **39,5** | **735** | **60,5** | **1.215** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeetarako kandidaturei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa, 2003ko apirilaren 29ko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetako zerrenden arabera.

Portzentajeok txikiagoak ditugu, zerrenda bakoitzeko lehenengo bost postuei erreparatzen badiegu; eta are txikiagoak, kandidaturetako lehenengo postuak kontutan hartzen baditugu. Horrela, foru kandidaturetan emakumeak 74 zerrendetariko 17tan bakarrik ziren buru, hau da, kandidatura guztietariko %23tan. Batzar Nagusietarako lehenengo bost postuetan, emakumeek %30,5 betetzen dute Arabako kandidaturetan; %36,3, Gipuzkoakoetan; eta %44,6, Bizkaikoetan.

**3.3. TAULA Hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskunde-zerrendetako lehenengo postuko pertsonak sexuaren arabera. 2003.**

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Araba | 5 | 16 | 21 |
| Bizkaia | 7 | 19 | 26 |
| Gipuzkoa | 5 | 22 | 27 |
| **GUZTIRA** | **17 (%23)** | **57 (%77)** | **74** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeetarako kandidaturei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa, 2003ko apirilaren 29ko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetako zerrenden arabera.

**3.4. TAULA** **Arabako Batzar Nagusietarako hauteskunde-zerrendetako lehenengo bost postuen banaketa, sexuaren araberakoa eta hauteskunde-barrutiaren arabera. 2003**

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA-BURUA |
|---|---|---|---|
| **VITORIA-GASTEIZ** | | | |
| PSE-EE | 4 | 1 | Gizona |
| EAJ-PNV/EA | 4 | 1 | Gizona |
| EB-IU | 4 | 1 | Gizona |
| Unidad Alavesa | 4 | 1 | Gizona |
| Aralar | 3 | 2 | Emakumea |
| Gasteizko AUB | 3 | 2 | Emakumea |
| PP | 4 | 1 | Gizona |
| **ZUIA, AGURAIN, AÑANA, KANPEZU ETA BIASTERI** | | | |
| PSE-EE | 4 | 1 | Gizona |
| EAJ/PNV | 4 | 1 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Gizona |
| Unidad Alavesa | 5 | 0 | Gizona |
| Aralar | 4 | 1 | Gizona |
| Lur Jareetako AUB | 3 | 2 | Gizona |
| PP | 5 | 0 | Gizona |
| **AIARA-AYALA** | | | |
| PSE-EE | 3 | 2 | Gizona |
| PP | 3 | 2 | Gizona |
| EAJ-PNV/EA | 2 | 3 | Emakumea |
| EB-IU | 3 | 2 | Emakumea |
| Aralar | 5 | 0 | Gizona |
| Aiarako AUB | 2 | 3 | Gizona |
| Unidad Alavesa | 1 | 4 | Emakumea |
| **GUZTIRA 105** | **73** | **32** | **16 gizon** |
| | **%69,5** | **%30,5** | **5 emakume** |

ITURRIA: Arabako Aldizkari Ofiziala (2003.29.04).

**3.5. TAULA** **Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskunde-zerrendetako lehenengo bost postuen banaketa, sexuaren araberakoa eta hauteskunde-barrutiaren arabera. 2003**

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA-BURUA |
|---|---|---|---|
| **BILBO/BILBAO** | | | |
| EAJ-PNV/EA | 2 | 3 | Gizona |
| PP | 3 | 2 | Gizona |
| PSE-EE | 3 | 2 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Gizona |
| Aralar | 3 | 2 | Gizona |
| EKA-PC | 3 | 2 | Gizona |
| Bilboko AUB | 2 | 3 | Emakumea |
| Partido Humanista | 2 | 3 | Gizona |
| **ENKARTERRIAK** | | | |
| PP | 2 | 3 | Emakumea |
| PSE-EE | 3 | 2 | Gizona |
| EAJ-PNV/EA | 3 | 2 | Emakumea |
| EB-IU | 3 | 2 | Gizona |
| Enkarterrietako AUB | 3 | 2 | Gizona |
| Aralar | 3 | 2 | Gizona |
| **DURANGO-ARRATIA** | | | |
| EAJ/PNV | 3 | 2 | Emakumea |
| PP | 1 | 4 | Emakumea |
| PSE-EE | 3 | 2 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Emakumea |
| EKA-PC | 3 | 2 | Gizona |
| Aralar | 3 | 2 | Gizona |
| **BUSTURIA-URIBE** | | | |
| PSE-EE | 3 | 2 | Gizona |
| PP | 3 | 2 | Gizona |
| EAJ/PNV | 3 | 2 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Emakumea |
| Busturia Uribeko AUB | 3 | 2 | Gizona |
| Aralar | 3 | 2 | Gizona |
| **GUZTIRA 130** | **72** | **58** | **19 gizon** |
| | **%55,4** | **%44,6** | **7 emakume** |

ITURRIA: Bizkaiko Aldizkari Ofiziala (2003.04.29).

**3.6. TAULA Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskunde-zerrendetako lehenengo bost postuen banaketa, sexuaren araberakoa eta hauteskunde-barrutiaren arabera. 2003**

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA- BURUA |
|---|---|---|---|
| **DEBA-UROLA** | | | |
| PP | 3 | 2 | Emakumea |
| PSE-EE | 4 | 1 | Gizona |
| EAJ-PNV/EA | 4 | 1 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Gizona |
| Aralar | 3 | 2 | Gizona |
| AUB | 3 | 2 | Emakumea |
| **DONOSTIALDEA** | | | |
| PP | 3 | 2 | Gizona |
| PSE-EE | 3 | 2 | Gizona |
| Plazandreok | 0 | 5 | Emakumea |
| EAJ-PNV/EA | 4 | 1 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Gizona |
| Aralar | 5 | 0 | Gizona |
| Donostialdeko AUB | 3 | 2 | Gizona |
| **BIDASOA-OIARTZUN** | | | |
| PP | 4 | 1 | Gizona |
| PSE-EE | 2 | 3 | Gizona |
| Plazandreok | 0 | 5 | Emakumea |
| EAJ/PNV | 3 | 2 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Gizona |
| Aralar | 4 | 1 | Gizona |
| Oiartzun-Bidasoako AUB | 4 | 1 | Gizona |
| **ORIA** | | | |
| PP | 3 | 2 | Gizona |
| PSE-EE | 3 | 2 | Gizona |
| EAJ-PNV/EA | 5 | 0 | Gizona |
| EKA | 4 | 1 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Emakumea |
| Oriako AUB | 4 | 3 | Gizona |
| Aralar | 4 | 1 | Gizona |
| **GUZTIRA 135** | **86** | **49** | **22 gizon** |
| | **%63,7** | **%36,3** | **5 emakume** |

ITURRIA: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (2003.04.29).

Sexuari erreparatuta, 2003ko udal hauteskundeetarako kandidaturetan % 34,9 emakume eta %65,1 gizon zeuden. EAEko hiru hiriburuetan aurkeztutako kandidaturetako lehenengo bost postuetakoak zehazki kontutan hartzen baditugu, ikus dezakegu ezen Gasteizko, Bizkaiko eta Donostiako portzentajeak %30ekoa, %40koa eta %44,4koa direla hurrenez hurren. Hori dela eta, erraztasun handiagoz azal daiteke udalotan beste udaletan baino handiagoa den emakumezko zinegotzien proportzioa. Donostiako kasu zehatzari dagokionez, adierazi behar da ezen Plazandreok plataformak, emakumeek bakarrik osaturiko kandidatura baita, hauteskunde-zerrendetako emakumeen proportzioa gorarazi duela.

### 3.7. TAULA Udal hauteskunde-zerrendetako hautagaiak, sexuaren arabera. 2003.

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | KOP. | % | KOP. | % | |
| Araba | 867 | 31,7 | 1.869 | 68,3 | 2.736 |
| Bizkaia | 2.668 | 35,8 | 4.783 | 64,2 | 7.451 |
| Gipuzkoa | 1.784 | 35,4 | 3.251 | 64,6 | 5.035 |
| **GUZTIRA** | **5.319** | **34,9** | **9.903** | **65,1** | **15.222** |

ITURRIA: 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeetarako kandidaturei buruzko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa, 2003ko apirilaren 29ko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetako zerrenden arabera.

### 3.8. TAULA Gasteizko udal hauteskundeetarako hauteskunde-zerrendetako lehenengo bost postuen banaketa, sexuaren araberakoa. 2003

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA-BURUA |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 3 | 2 | Gizona |
| PP | 4 | 1 | Gizona |
| EAJ-PNV/EA | 3 | 2 | Gizona |
| Falange Española Independiente-Falange 2000 | 5 | 0 | Gizona |

## 3.8. TAULA Gasteizko udal hauteskundeetarako hauteskunde-zerrendetako lehenengo bost postuen banaketa, sexuaren araberakoa. 2003 (jarraipena)

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA-BURUA |
|---|---|---|---|
| EB-IU | 3 | 2 | Gizona |
| Frente Español | 4 | 1 | Gizona |
| Unidad Alavesa | 2 | 3 | Emakumea |
| Aralar | 5 | 0 | Gizona |
| Gasteiz Izan | 3 | 2 | Gizona |
| Partido Humanista | 3 | 2 | Emakumea |
| **GUZTIRA 50** | **35** | **15** | **8 gizon** |
| | **%70** | **%30** | **2 emakume** |

ITURRIA: Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala (2003.04.29).

## 3.9. TAULA Bilboko udal hauteskundeetarako hauteskunde-zerrendetako lehenengo bost postuen banaketa, sexuaren araberakoa. 2003

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA-BURUA |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV/EA | 4 | 1 | Gizona |
| PP | 3 | 2 | Gizona |
| Partido Antitaurino contra el Maltrato Animal | 1 | 4 | Emakumea |
| PSE-EE | 3 | 2 | Gizona |
| Falange Española Independiente-Falange 2000 | 5 | 0 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Emakumea |
| Aralar | 3 | 2 | Gizona |
| EKA-PC | 2 | 3 | Emakumea |
| Partido del Karma Democrático | 4 | 1 | Gizona |
| Frente Español | 5 | 0 | Gizona |
| Herria Aurrera | 2 | 3 | Emakumea |
| Partido Humanista | 1 | 4 | Emakumea |
| Partido Obrero Socialista Internacionalista | 3 | 2 | Gizona |
| **GUZTIRA 65** | **39** | **26** | **8 gizon** |
| | **%60** | **%40** | **5 emakume** |

ITURRIA: Bizkaiko Aldizkari Ofiziala (2003.04.29).

**3.10. TAULA Gipuzkoako udal hauteskundeetarako hauteskunde-zerrendetako lehenengo bost postuen banaketa, sexuaren araberakoa. 2003**

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA-BURUA |
|---|---|---|---|
| PP | 3 | 2 | Emakumea |
| PSE-EE | 4 | 1 | Gizona |
| Plazandreok | 0 | 5 | Emakumea |
| Falange Española Independiente-Falange 2000 | 2 | 3 | Gizona |
| EB-IU | 3 | 2 | Emakumea |
| Aralar | 3 | 2 | Gizona |
| Frente Español | 5 | 0 | Gizona |
| Baga Boga | 2 | 3 | Gizona |
| EAJ-PNV/EA | 3 | 2 | Gizona |
| **GUZTIRA 45** | **25** | **20** | **6 gizon** |
| | **%55,6** | **%44,4** | **3 emakume** |

ITURRIA: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (2003.04.29).

## 2004KO HAUTESKUNDE OROKORRAK 3.2

EAEko hauteskunde-barrutietan 2004ko martxoko hauteskunde orokorren kariaz aurkeztutako kandidaturetako gehienak gizonezkoak izan dira, halaber. Araban Kongresurako aurkezturiko zerrendetan %62,5 gizon daude; eta Bizkaian eta Gipuzkoan, %66,7na. Senaturako kandidaturetan %64,5 gizonezko daude Araban, eta %73,5 Bizkaian; eta Gipuzkoako banaketa nahiko orekatuta dagoela ikus daiteke: lurralde historiko horretan guztira 14 emakume eta 18 gizon aurkeztu ziren, %43,7 eta %56,3, hurrenez hurren.

## 3.11. TAULA Kongresurako hauteskunde-zerrenden banaketa, sexuaren araberakoa. 2004ko hauteskundeak (ARABA)

| KANDIDATURA | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA-BURUA |
|---|---|---|---|
| Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ – EAJ) | 2 | 2 | Gizona |
| Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE-EE) | 2 | 2 | Gizona |
| Alderdi Popularra (PP) | 3 | 1 | Gizona |
| EKA. Euskal Herriko Karlista Alderdia (EKA – PC) | 3 | 1 | Gizona |
| Democracia Nacional (DN) | 4 | 0 | Gizona |
| Izquierda Republicana (IR) | 3 | 1 | Gizona |
| Falange Española de las JONS | 3 | 1 | Gizona |
| Movimiento Social Republicano (MSR) | 3 | 1 | Gizona |
| Eusko Alkartasuna (EA) | 2 | 2 | Gizona |
| Partido Humanista (PH) | 1 | 3 | Emakumea |
| La Falange (FE) | 3 | 1 | Gizona |
| Ezker Batua – Izquierda Unida (EB/IU) | 2 | 2 | Gizona |
| Aralar – Zutik (ARALAR – ZUTIK) | 2 | 2 | Gizona |
| Centro Democrático y Social (CDS) | 2 | 2 | Gizona |
| **GUZTIRA 56** | **35** | **21** | |
| | **%62,5** | **%37,5** | |
| **EMAKUME ZERRENDA-BURUAK GUZTIRA** | | | **Emakume 1** |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko otsailaren 17ko 41 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

## 3.12. TAULA Kongresurako hauteskunde-zerrenden banaketa, sexuaren araberakoa. 2004ko hauteskundeak (BIZKAIA)

| KANDIDATURA | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA-BURUA |
|---|---|---|---|
| Alderdi Popularra (PP) | 4 | 5 | Gizona |
| Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ – EAJ) | 6 | 3 | Gizona |
| La Falange (FE) | 8 | 1 | Gizona |
| Euskal Herriko Karlista Alderdia (EKA – PC) | 4 | 5 | Emakumea |
| Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE-EE) | 5 | 4 | Emakumea |
| Izquierda Republicana (IR) | 6 | 3 | Gizona |
| Partido del Karma Democrático (PKD) | 5 | 4 | Gizona |
| Ezker Batua – Izquierda Unida (EB/IU) | 5 | 4 | Gizona |
| Eusko Alkartasuna (EA) | 5 | 4 | Gizona |
| Movimiento Social Republicano (MSR) | 8 | 1 | Gizona |
| Aralar – Zutik (ARALAR – ZUTIK) | 6 | 3 | Gizona |
| Falange Española de las JONS | 8 | 1 | Gizona |
| Partido Obrero Socialista Internacionalista (POSI) | 7 | 2 | Gizona |
| Centro Democrático y Social (CDS) | 6 | 3 | Gizona |
| Democracia Nacional (DN) | 7 | 2 | Gizona |
| Partido Humanista (PH) | 3 | 6 | Emakumea |
| **GUZTIRA 135** | **90** | **45** | |
| | **%66,7** | **%33,3** | |
| **EMAKUME ZERRENDA-BURUAK GUZTIRA** | | | **3 emakume** |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko otsailaren 17ko 41 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

## 3.13. TAULA Kongresurako hauteskunde-zerrenden banaketa, sexuaren araberakoa. 2004ko Hauteskunde Orokorrak (GIPUZKOA)

| ALDERDIA | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA- BURUA |
|---|---|---|---|
| Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ – EAJ) | 4 | 2 | Gizona |
| Alderdi Popularra (PP) | 5 | 1 | Gizona |
| Eusko Alderdi Sozialista (PSE-EE) | 3 | 3 | Gizona |
| La Falange (FE) | 6 | 0 | Gizona |
| Izquierda Republicana (IR) | 4 | 2 | Emakumea |
| Falange Auténtica (FA) | 5 | 1 | Gizona |
| Ezker Batua – Izquierda Unida (EB/IU) | 4 | 2 | Gizona |
| Eusko Alkartasuna (EA) | 3 | 3 | Emakumea |
| Democracia Nacional (DN) | 6 | 0 | Gizona |
| EKA – Euskal Herriko Karlista Alderdia | 4 | 2 | Emakumea |
| Movimiento Social Republicano (MSR) | 4 | 2 | Gizona |
| Falange Española de las JONS | 4 | 2 | Emakumea |
| Aralar – Zutik (ARALAR – ZUTIK) | 2 | 4 | Gizona |
| Partido Humanista (PH) | 2 | 4 | Emakumea |
| Centro Democrático y Social (CDS) | 4 | 2 | Gizona |
| **GUZTIRA 90** | **60** | **30** | |
| | **%66,7** | **%33,3** | |
| **EMAKUME ZERRENDA-BURUAK GUZTIRA** | | | **5 emakume** |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko otsailaren 17ko 41 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

## 3.14. TAULA Senaturako hauteskunde-zerrenden banaketa, sexuaren araberakoa. 2004ko Hauteskunde Orokorrak (ARABA)

| KANDIDATURA | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA- BURUA |
|---|---|---|---|
| Partido Obrero Socialista Internacionalista (POSI) | 1 | 0 | Gizona |
| Falange Auténtica (FA) | 1 | 0 | Gizona |
| Centro Democrático y Social (CDS) | 1 | 2 | Emakumea |
| Falange Española de las JONS | 1 | 0 | Gizona |
| EKA. Euskal Herriko Karlista Alderdia (EKA – PC) | 1 | 0 | Gizona |
| Aralar – Zutik (ARALAR – ZUTIK) | 1 | 2 | Emakumea |
| Partido Antitaurino Contra el Maltrato Animal (PACMA – ZAAAA) | 1 | 0 | Gizona |
| Eusko Alderdi Sozialista (PSE-EE) | 2 | 1 | Gizona |
| Otra Democracia es posible (OTRADEM) | 1 | 0 | Gizona |
| Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ – EAJ) | 2 | 1 | Gizona |
| Ezker Batua – Izquierda Unida (EB/IU) | 2 | 1 | Gizona |
| Comunión Tradicionalista Carlista (CTC) | 2 | 1 | Gizona |
| Eusko Alkartasuna (EA) | 1 | 2 | Emakumea |
| Partido Humanista (PH) | 1 | 0 | Gizona |
| Alderdi Popularra (PP) | 2 | 1 | Gizona |
| **GUZTIRA 31** | **20** | **11** | |
| | **%64,5** | **%35,5** | |
| **EMAKUME ZERRENDA-BURUAK GUZTIRA** | | | **3 emakume** |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko otsailaren 17ko 41 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

## 3.15. TAULA Senaturako hauteskunde-zerrenden banaketa, sexuaren araberakoa. 2004ko Hauteskunde Orokorrak (BIZKAIA)

| KANDIDATURA | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA- BURUA |
|---|---|---|---|
| Alderdi Popularra (PP) | 2 | 1 | Emakumea |
| Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ – EAJ) | 2 | 1 | Gizona |
| Euskal Herriko Karlista Alderdia (EKA – PC) | 1 | 0 | Gizona |
| Comunión Tradicionalista Carlista (CTC) | 1 | 0 | Gizona |
| Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE-EE) | 3 | 0 | Gizona |
| Partido Antitaurino Contra el Maltrato Animal (PACMA – ZAAAA) | 0 | 1 | Emakumea |
| Coalición Republicano – Socialista (IR – PASOC) | 1 | 0 | Gizona |
| Partido del Karma Democrático (PKD) | 2 | 1 | Emakumea |
| Falange Auténtica (FA) | 1 | 0 | Gizona |
| Ezker Batua – Izquierda Unida (EB/IU) | 2 | 1 | Gizona |
| Eusko Alkartasuna (EA) | 2 | 1 | Gizona |
| Aralar – Zutik (ARALAR – ZUTIK) | 3 | 0 | Gizona |
| Falange Española de las JONS | 1 | 0 | Gizona |
| Partido Obrero Socialista Internacionalista (POSI) | 0 | 1 | Emakumea |
| Centro Democrático y Social (CDS) | 2 | 1 | Emakumea |
| Partido Humanista (PH) | 2 | 1 | Gizona |
| Ciudadanos Agobiados y Cabreados (CayC) | 1 | 0 | Gizona |
| **GUZTIRA 34** | **25** | **9** | |
| | **%73,5** | **%26,5** | |
| **EMAKUME ZERRENDA-BURUAK GUZTIRA** | | | **5 emakume** |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko otsailaren 17ko 41 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

## 3.16. TAULA Senaturako hauteskunde-zerrenden banaketa, sexuaren araberakoa. 2004ko Hauteskunde Orokorrak (GIPUZKOA)

| KANDIDATURA | GIZONAK | EMAKUMEAK | ZERRENDA-BURUA |
|---|---|---|---|
| EKA. Euskal Herriko Karlista Alderdia (EKA – PC) | 1 | 0 | Gizona |
| Euskadiko Alderdi Sozialista – Euskadiko Ezkerra (PSOE) [PSE-EE (PSOE)] | 1 | 2 | Gizona |
| Ezker Batua – Izquierda Unida (EB/IU) | 1 | 2 | Emakumea |
| Aralar – Zutik (ARALAR – ZUTIK) | 2 | 1 | Gizona |
| Falange Auténtica (FA) | 1 | 0 | Gizona |
| Coalición Republicano – Socialista (IR – PASOC) | 0 | 1 | Emakumea |
| Eusko Alkartasuna (EA) | 2 | 1 | Emakumea |
| Alderdi Popularra (PP) | 1 | 2 | Emakumea |
| Comunión Tradicionalista Carlista (CTC) | 2 | 1 | Emakumea |
| Otra Democracia es posible (OTRADEM) | 1 | 0 | Gizona |
| Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ – EAJ) | 2 | 1 | Gizona |
| Partido Obrero Socialista Internacionalista (POSI) | 1 | 0 | Gizona |
| Falange Española de las JONS | 1 | 0 | Gizona |
| Partido Humanista (PH) | 0 | 1 | Emakumea |
| Centro Democrático y Social (CDS) | 1 | 2 | Gizona |
| Partido Antitaurino Contra el Maltrato Animal (PACMA – ZAAAA) | 1 | 0 | Gizona |
| **GUZTIRA 32** | **18** | **14** | |
| | **%56,3** | **%43,7** | |
| **EMAKUME ZERRENDA-BURUAK GUZTIRA** | | | **6 emakume** |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko otsailaren 17ko 41 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

Kongresurako zerrenda-buruak kontutan harturik, gizonak %80 dira; eta emakumeak, %20, 45etarik 9 zehazki. Senatuaren kasuan, EAEn aurkeztutako 48 zerrenda-buruak 14 emakumeren (%29,2) eta 34 gizonen (%70,8) artean banatuta daude.

### 3.17. TAULA Kongresurako zerrenda-buruak. 2004ko hauteskundeak

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Araba | 1 | 13 | 14 |
| Bizkaia | 3 | 13 | 16 |
| Gipuzkoa | 5 | 10 | 15 |
| **GUZTIRA** | **9** | **36** | **45** |
| % | %20 | %80 | |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko otsailaren 17ko 41 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

### 3.18. TAULA Senaturako zerrenda-buruak. 2004ko hauteskundeak

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Araba | 3 | 12 | 15 |
| Bizkaia | 5 | 12 | 17 |
| Gipuzkoa | 6 | 10 | 16 |
| **GUZTIRA** | **14** | **34** | **48** |
| % | %29,2 | %70,8 | |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko otsailaren 17ko 41 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

# EUROPAKO PARLAMENTURAKO 2004KO HAUTESKUNDEAK 3.3

Azkenik, 2004ko ekaineko Europako hauteskundeen kariaz aurkeztutako hauteskunde-zerrenden osaketari dagokionez, emakumeak buru Estatuko hauteskunde-barrutian aurkeztutako 32 kandidaturetariko 5etan bakarrik dira, guztirakoaren %15,6tan alegia.

**3.19. TAULA Europako Parlamenturako 2004ko ekainaren 13ko hauteskundeetarako kandidaturetako zerrenda-buruen banaketa, sexuaren araberakoa**

| KANDIDATURA | ZERRENDA- BURUA |
|---|---|
| Galeusca-Pueblos de Europa (GALEUSCA) | Gizona |
| Centro Democrático y Social (C.D.S) | Emakumea |
| Partido Socialista Obrero Español (PSOE) | Gizona |
| Nueva Izquierda Verde (N.I.V) | Gizona |
| Candidatura D´unitat Popular (CUP) | Gizona |
| Unión Centrista Liberal (UCL) | Gizona |
| La Falange (FE) | Gizona |
| Alderdi Popularra (PP) | Gizona |
| Europa de los Pueblos (EdP) | Gizona |
| Tierra Comunera-Partido Nacionalista Castellano (TC-PNC) | Gizona |
| Nós-Unidade Popular (NÓS-UP) | Gizona |
| Salamanca, Zamora, León Prepal (PREPAL) | Gizona |
| Coalición Europea (CE) | Gizona |
| Aralar (ARALAR) | Gizona |
| Estat Català (EC) | Emakumea |
| Partido Humanista (PH) | Gizona |
| Herritarren Zerrenda (HZ) | Emakumea |
| Por Un Mundo Más Justo (PUM+J) | Gizona |

## 3.19. TAULA Europako Parlamenturako 2004ko ekainaren 13ko hauteskundeetarako kandidaturetako zerrenda-buruen banaketa, sexuaren araberakoa. (jarraipena)



| KANDIDATURA | ZERRENDA- BURUA |
|---|---|
| Izquierda Unida- Iniciativa per Catalunya Verds- Ezquerra Unida I Alternativa (IU-ICV-EUIA) | Gizona |
| Partido "Familia y Vida" (PF y V) | Gizona |
| Falange Auténtica (FA) | Gizona |
| Euskal Herriko Karlista Alderdia (EKA-PC) | Emakumea |
| Los Parados (LOS PARADOS) | Gizona |
| Partido de Acción Socialista (PASOC) | Gizona |
| Los Verdes – Grupo Verde Europeo (LV – GV) | Emakumea |
| Partido Demócrata Español (PADE) | Gizona |
| Por Unha Europa de los Trabajadores y los Pueblos No a la Constitución Europea {PCPE-LI (LIT-CI) } | Gizona |
| Falange Española de las J.O.N.S. (FE de las JONS) | Gizona |
| Partido Obrero Socialista Internacionalista (POSI) | Gizona |
| Democracia Nacional (DN) | Gizona |
| Coalición Liberal (CL) | Gizona |
| Partido Cannabis por la Legalización y Normalización (P.CANNABIS) | Gizona |
| **ZERRENDA-BURUAK GUZTIRA** | **Gizonak: 27 (%84,4)**<br>**Emakumeak: 5 (%15,6)** |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko maiatzaren 18ko 120 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

Osaketa osoa kontutan hartzen badugu (igurikapen handiagoak agertzen dituzten zerrenden kasuan bakarrik), ikus dezakegu ezen portzentajeak askoz handiagoak direla, emakumeak kide guztietarik %40,7 dira. Alabaina, proportzio hori txikiagoa da hauteskundeen ostean hautetsi ziren pertsonen artean: jokoan zeuden 54 aulkietarik 18 (%33,3) emakumeei egokitu zitzaizkien; eta 36 (%66,7), gizonei.

## 3.20. TAULA Europako Parlamenturako 2004ko ekainaren 13ko hauteskundeetarako kandidaturen banaketa, sexuaren araberakoa

| KANDIDATURA | GIZON. KOP. | GIZON. % | EMAKUM. KOP. | EMAKUM. % | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| Galeusca-Pueblos de Europa (GALEUSCA) | 32 | 59,26 | 22 | 40,74 | 54 |
| Partido Socialista Obrero Español (PSOE) | 30 | 55,56 | 24 | 44,44 | 54 |
| Alderdi Popularra (PP) | 36 | 66,67 | 18 | 33,33 | 54 |
| Europa de los Pueblos (EdP) | 34 | 62,96 | 20 | 37,04 | 54 |
| Aralar (ARALAR) | 32 | 59,26 | 22 | 40,74 | 54 |
| Herritarren Zerrenda (HZ) | 31 | 57,41 | 23 | 42,59 | 54 |
| Izquierda Unida- Iniciativa per Catalunya Verds- Ezquerra Unida I Alternativa (IU-ICV-EUIA) | 29 | 53,70 | 25 | 46,30 | 54 |
| **GUZTIRA** | **224** | **59,3** | **154** | **40,7** | **378** |

ITURRIA: Asteartea izandako 2004ko maiatzaren 18ko 120 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

## 3.21. TAULA Europako Parlamenturako 2004ko ekainaren 13ko hauteskundeetan hautetsiriko gizonak eta emakumeak alderdika eta sexuaren arabera

| KANDIDATURA | GIZON. KOP. | GIZON. % | EMAKUM. KOP. | EMAKUM. % | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| Partido Socialista Obrero Español (PSOE) | 14 | 56 | 11 | 44 | 25 |
| Alderdi Popularra (PP) | 17 | 70,84 | 7 | 29,16 | 24 |
| Galeusca-Pueblos de Europa (GALEUSCA) | 2 | 100 | 0 | 0 | 2 |
| Izquierda Unida- Iniciativa per Catalunya Verds- Ezquerra Unida I Alternativa (IU-ICV-EUIA) | 2 | 100 | 0 | 0 | 2 |
| Europa de los Pueblos (EdP) | 1 | 100 | 0 | 0 | 1 |
| **GUZTIRA** | **36** | **66,7** | **18** | **33,3** | **54** |

ITURRIA: Osteguna izandako 2004ko uztailaren 1eko 158 zenbakiko EAOko datuen araberako elaborazio propioa.

# 4

# HERRI ADMINISTRAZIOA

Herri Administrazioa aztertzeko beste eremu interesgarri bat da, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari dagokionean. Orokorrean, erakundeotako gizon eta emakumeen presentzia herri botereetan hautetsiriko pertsonen artean ikusitakoa baino orekarik ez handiagokoa izaten da.

Emakumeek euskal bizitza politikoko beste eremu batzuk atzitzearen azken hamarkadetako bilakaera gorabehera, gobernuak eta izendapen politikoko karguak gizonek betetzen dituzte bereziki oraindik.

## GOI-KARGUAK 4.1

Euskal administrazioetan, izendapen politikoko karguetan, emakumeen eta gizonen presentzia ez da asko aldatu azken urteetan. Betearazpen maila da, oraindik, emakumeentzat itxiena: horrela, egun Eusko Jaurlaritzako goi-karguen %25 bakarrik dago (sailen, sailburuordetzen eta zuzendaritzen arduradun guztiak kontutan harturik) emakumeek beteta.

Ezberdintasunak agerikoagoak dira erantzukizun-piramidean gora egin ahala. Horrela, tradizioz sailburu karguak gizonezkoek bete dituzte bereziki, eta lehenengo sei legealdietan 5 emakume bakarrik izendatu dituzte sailburu. Emakume horiek hainbat kartera hartu zuten arduratzeko: Ekonomia eta Plangintza; Kultura; eta Merkataritza, Kontsumoa eta Turismoa. Gainera, birritan bete ditu (egungo legealdia barnean sarturik) emakume batek gobernuaren bozeramalearen funtzioak.

Sarritan aztertu da elite politikoen berriztaketa maila, erantzukizuneko karguetako egonaldiaren bitartez bereziki neurtzen dena. Egindako azterketen arabera, askoz egonaldi maila altuagoa dago kargu politikoak betetzen dituzten gizonengan, eta emakumeek betetako karguak berriztatzeko joera handiagoa dago. Eusko Jaurlaritzan sailburu izan diren emakumeen kasuan, berorien karguko egonaldia, orokorrean, gizonenekoena baino askoz laburragoa izan da: birritan ez dute postuan urtebe-

te egin eta andreotariko bik bakarrik eutsi diote beren karguari legealdi batean baino gehiagotan.

Sailburu emakumezkoen portzentajea urteetan zehar aldatuz joan da, %20ko maila gainditu barik, egungo gobernuaren %36,4 izan arte. Egun, jaurlaritza osatzen duten hamar sailetarik lau emakumeek zuzenduta daude: Ogasuna eta Herri Administrazioa; Kultura; Industria, Merkataritza eta Turismoa; eta Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa. Gainera, 1998an hasitako aurreko legealdiaz geroztik, emakume batek betetzen du lehendakariordearen kargua.

Emakumeek betearazpen mailako kargu politikoak hartzeko zailtasunak dituzte beste sail batzuetan ere. Gizonak gehiengodunak dira Sailordetza eta idazkaritza nagusietan: guztirakoaren %91,2. Egin-eginean ere, egun 4 emakumek bakarrik izaten dute sailburuordetza-maila. Zuzendaritzen kasuan, %27,8 bakarrik daude emakumeek hartuta. Aurreko legealdiak historikoki errepasatuta esan daitekeenez, emakume gehitxoago daude Eusko Jaurlaritzako goi-karguetan, baina gehiagotze hori ez da ordezkaritza-erakundeetako neurri berean gertatu.

**4.1. TAULA Eusko Jaurlaritzako eta bertako Erakunde Autonomoetako goi-karguak, sexuaren arabera. 2004**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Sailak (1) | 11 | 4 | 36,4 | 7 | 63,6 |
| Sailburuordetza-maila | 36 | 4 | 11,1 | 32 | 88,9 |
| Zuzendaritza-maila | 133 | 37 | 27,8 | 96 | 72,2 |
| **GUZTIRA** | **180** | **45** | **25,0** | **135** | **75,0** |

ITURRIA: Emakunde.

(1) Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde andreak bereganaturik du Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren kargua. Publikoa.

Emakumeen erakundeetako presentziari buruz azpimarratu ohi denez, emakumeak zenbait erakunde-arlotan sartzea ikusgarriagoa izan da. Horrela, tradizioz, emakumeek historikoki bete duten rolarekin zerikusia duten arloetan (Gizarte Arazoetarako Sailean, Kultura Sailean, Osasun Sailean eta Hezkuntza Sailean) sartzea errazagoa izan da politikari andreentzat. Eusko Jaurlaritzaren kasu zehatzean ikusi denez, joera hori aldatu da. Kultura Saileko karguetan dago emakumeen presentziarik handiena, genero-berdintasuna dago zuzendaritzen kasuan, baina Etxebizitza eta Gizarte Gaiak eta Osasun Sailetako goi-karguetako emakumeen presentzia ia %20koa da. Industri, Merkataritza eta Turismo eta Herrizaingo Sailetako karguetako emakumeen presentzia %33tik gorakoa da. Orokorrean, zenbait aurrerapen ikusi diren arren, oraindik gizon gehiago daude erantzukizun politikoko karguetan. Arlo jakin batzuetako kargu guztiak gizonek beteta daude, hala nola, Nekazaritza eta Arrantzakoak.

**4.2. TAULA Eusko Jaurlaritzako eta bertako Erakunde Autonomoetako goi-karguak, sailen eta sexuaren arabera. 2004**

| | SAILA | | SAILBURU ORDETZA--MAILA | | | ZUZENDARITZA--MAILA | | | % GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | GUZT | E | G | GUZT | E | G | E | G |
| Lehendakaritza | | | 5 | 1 | 4 | 11 | 3 | (2)8 | 25,0 | 75,0 |
| Lehendakariordetza (1) | 1 | | 3 | 0 | 3 | 9 | 3 | 6 | 30,8 | 69,2 |
| Ogasun eta Herri Adm. (1) | 1 | | 4 | 0 | 4 | 14 | 3 | 11 | 21,1 | 78,9 |
| Hezkuntza, Unib. eta Ikerk. | 1 | | 4 | 0 | 4 | 11 | 4 | 7 | 31,3 | 68,8 |
| Herrizaingo Saila | | 1 | 2 | 1 | 1 | 14 | 5 | 9 | 35,3 | 64,7 |
| Industria, Merkataritza eta Tur. | 1 | | 4 | 1 | 3 | 13 | 4 | 9 | 33,3 | 66,7 |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | | 1 | 2 | 0 | 2 | 9 | 2 | 7 | 16,7 | 83,3 |
| Justizia, Lan eta G.S. | | 1 | 3 | 1 | 2 | 13 | 3 | 10 | 23,5 | 76,5 |
| Osasuna | | 1 | 2 | 0 | 2 | 8 | 2 | 6 | 18,2 | 51,8 |
| Kultura | 1 | | 2 | 0 | 2 | 11 | 6 | 5 | 50,0 | 50,0 |
| Lurralde Antol. eta Inguru. | | 1 | 2 | 0 | 2 | 7 | 1 | 6 | 10,0 | 90,0 |
| Garraioa eta Herri Lanak | | 1 | 1 | 0 | 1 | 5 | 1 | 4 | 14,3 | 85,7 |
| Nekazaritza eta Arrantza | | 1 | 2 | 0 | 2 | 8 | 0 | 8 | 00,0 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | **5** | **7** | **36** | **4** | **32** | **133** | **37** | **96** | **25,4** | **74,6** |

ITURRIA: Emakunde.

(1) Pertsona bera bi sailetako burua da.

(2) Eusko Jaurlaritzaren Atzerriko 4 ordezkariak barnean sarturik daude.

Gizon eta emakumeen arteko kargu politikoetako ezberdintasuna bestelako postuetan ikus daiteke halaber. Horrela, Eusko Jaurlaritzak egungo legealdian egindako 85 izendapenetarik 25 emakumezko bakarrik izendatu ziren. Aztertutako organoei dagokienean, gizonak gehiengodunak dira Eusko Jaurlaritzak izendatutako postuetan, egindako izendapenak emakumeei bakarrik dagozkien Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluan izan ezik. Egin-eginean ere, euskal legegintza-ganberak egindako pertsona bakarreko izendapen guztiak gizonezkoentzakoak izan ziren. Horrelako kasuen

artean honakook aipa daitezke: EITB-ren zuzendari nagusia eta halaber Ingurumenerako Aholku Batzordeko burua den Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko arduraduna.

### 4.3. TAULA Egungo Eusko Legebiltzarrak egindako izendapenak (VII. Legealdia)

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Senatariak | 1 | 2 | 3 |
| Arartekoa | 1 | 1 | 2 |
| Herri-Kontuen Euskal Epaitegia | 5 | 2 | 7 |
| EHUko Gizarte Kontseilua | 6 | 2 | 8 |
| RTVEren Euskal Herriko Aholku Batzordea | 10 | 5 | 15 |
| EITB-ren Administrazio Kontseilua | 17 | 2 | 19 |
| EITB-ren zuzendari nagusia | 1 | - | 1 |
| Euskal Estatistika Kontseilua. | 3 | - | 3 |
| EAEko Hauteskunde Batzordeko kideak | 4 | 1 | 5 |
| Emakunderen Zuzendaritza Kontseilua | - | 6 | 6 |
| Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea | 1 | 1 | 2 |
| Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiarentzako Terna | 3 | - | 3 |
| Droga Mendekotasunen Aholku Kontseilu | 3 | 2 | 5 |
| Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua | 1 | - | 1 |
| Gastu Erreserbatuak kontrolatzeko Batzordea | 4 | 1 | 5 |
| Ingurumen Aholku Batzordea | 1 | - | 1 |
| Datuak babesteko Euskal Agentziaren Kontsulta Kontseilua | 1 | - | 1 |
| **GUZTIRA** | **61** | **25** | **86** |

ITURRIA: Eusko Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzuko datuetatik abiaturiko elaborazio propioa. <parlamento.euskadi.net>

Gizon eta emakumeen arteko goi-karguetako ezberdintasuna bistakoa da Foru Aldundien kasuan. Hiru Lurralde Historikoetan goi-karguetako emakumeen proportzioa gizonena baino txikiagoa da oraindik, baina gora joan da azken urteetan. Egun emakumeek hiru Foru Aldundietako goi-karguen %16,7 betetzen dute. Ildo horretatik, Gi-

puzkoako Foru Aldundia nabarmendu behar da, bertan erantzukizun politikoko kargudun emakumeak kargudun pertsona guztien ia laurdenak baitira.

### 4.4. TAULA Foru Aldundietako diputatuen (emakumeen zein gizonen) bilakaera. 1991-2003

| | 1991 | | 1999 | | 2003 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | E | G | E | G |
| Araba | 1 | 9 | 1 | 9 | 1 | 9 |
| Bizkaia | 0 | 12 | 2 | 9 | 1 | 11 |
| Gipuzkoa | 2 | 11 | 1 | 8 | 3 | 8 |
| **GUZTIRA** | **3** | **32** | **4** | **26** | **5** | **28** |

ITURRIA: Emakunde eta Foru Aldundien Informazio Zerbitzuak.

Oharra: hiru diputatu nagusiak daude bertan sarturik.

Egiaztaturiko aurrerapena gorabehera, ezein emakume ez da diputatu nagusi hautetsi historiako ezein unetan. Egin-eginean ere, egun 5 andrek bakarrik betetzen dute diputatuaren kargua, eta 25 gizon daude foru sailen arduradun nagusi gisa. Zuzendaritza Nagusiei dagokienez, gizonezkoek 57 zuzentzen dituzte, eta emakumeek 12.

### 4.5. TAULA Foru Aldundietako goi-karguak, sexuaren arabera. 2004

| | FORU DIPUTATUAK* | | ZUZENDARITZA NAGUSIAK | | GUZTIRA | % EMAKUMEAK | % GIZONAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | | | |
| Araba | 1 | 9 | 3 | 14 | 27 | 14,8 | 85,2 |
| Bizkaia | 1 | 11 | 4 | 25 | 41 | 12,2 | 87,8 |
| Gipuzkoa | 3 | 8 | 5 | 18 | 34 | 23,5 | 76,5 |
| **GUZTIRA** | **5** | **28** | **12** | **57** | **102** | **16,7** | **83,3** |

ITURRIA: Foru Aldundien Informazio Zerbitzuak.

*Hiru diputatu nagusiak daude bertan sarturik.

# HERRI ENTITATEAK ETA ERAKUNDEAK 4.2

Emakume gutxiago daude izendapen politikoko postuetan, eta, baita, Herri Administrazioaren beste eremu batzuetan. Horrela, herri erakundeetako burutzak edo zuzendaritzak ere joera hori du. Bost emakume eta hamaika gizon dira buru erakunde autonomoetan, zuzenbide pribatuko izaki publikoetan, kontseiluetan eta Legebiltzarrari atxikitako beste organo batzuetan. Emakumeek egun Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea, Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea, Energiaren Euskal Erakundea eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegia zuzentzen dute.

**4.6. TAULA Herri erakundeetako burutza edo zuzendaritza, sexuaren araberakoa: erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko izaki publikoak, kontseiluak eta Legebiltzarrari atxikitako organoak**

| | ARDURADUNA |
|---|---|
| ERAKUNDE AUTONOMIADUNAK | |
| Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia | Emakumea |
| Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea | Emakumea |
| Eustat- Euskal Estatistika Erakundea | Gizona |
| HABE- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundea | Gizona |
| HAEE- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea | Gizona |
| SHEE- Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea | Emakumea |
| Osalan- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea | Gizona |
| ZUZENBIDE PRIBATUKO HERRI ENTITATEAK | |
| Euskal Irrati Telebista | Gizona |
| Euskal Trenbide Sarea | Gizona |
| EEE - Energiaren Euskal Erakundea | Emakumea |
| Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua | Gizona |

**4.6. TAULA Herri erakundeetako burutza edo zuzendaritza, sexuaren araberakoa: erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko izaki publikoak, kontseiluak eta Legebiltzarrari atxikitako organoak (jarraipena)**

| | ARDURADUNA |
|---|---|
| KONTSEILUAK | |
| Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea | Gizona |
| Lan Harremanen Kontseilua | Gizona |
| Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua | Gizona |
| LEGEBILTZARRAREN MENPEKO ORGANOAK | |
| Herri-Kontuen Euskal Epaitegia | Emakumea |
| Arartekoa | Gizona |
| **GUZTIRA** | **5 emakume**<br>**11 gizon** |

ITURRIA: Eusko Jaurlaritza Direktoriotik abiaturiko elaborazio propioa.

## ERAKUNDE-ARTEKO BATZORDEAK 4.3

Eusko Jaurlaritzak, beste erakunde batzuek bezala, zenbait organo sortu ditu erakunde-arteko eta sail-arteko lankidetzarako eta koordinaziorako, eta hiritarrek parte hartu ahal izateko.

Organo horiek guztiek arazoak eta gizarte errealitatea aztertu eta sailen eta erakundeen eskumeneko eremuak bateratzea ahalbidetzen duen zeharkako perspektibatik esku hartzea dute xede. Lankidetza-mekanismoon onura eta baliagarritasunak honakoa du erakuspide: erabakiak hartzea eta Jaurlaritzak ezarririko jarduketak ebalua-

tzea. Horrela, erabakitzeko ahalmena mugaturik eduki ahal badute ere, feedback-erako eta informazioa banatzeko mekanismo garrantzitsuak dira.

Adierazi behar denez, askotan koordinazio-, lankidetza- eta aholkularitza-organoon osaketan ez da aurreikusten haien kideen izenen aipamena. Hori dela eta, datuak sexuaren arabera bereiztea zaila da. Hori guztia gorabehera, horrelako parteharmen-mekanismoen garrantzia dela eta, informazioa dugun kasuak aipatzea komeni da. Kasu honetan dauden organoetarik %12ri dagozkie eta argi erakusten dute gizonezkoen proportzioa emakumezkoena baino askoz handiagoa dela haien osaketan. Hori herri administrazioetako eta elkarteetako zuzendaritza-karguetako emakumeen presentzia urriaren zuzeneko ondorio da. Egin-eginean, organoon osaketak honako oinarriok ditu: hainbat sail eta erakundetako goi-karguak, eta, neurri txikiagoan, entitate sozialen ordezkariak.

Gainera, batzordeotako batzuek hiritarren iritzia erantsirik dute, elkarteen ordezkariek eta ospetsuak eta gaian esperientzia dutenak diren pertsonek parte harturik. Organooi horrelako emakumeak eranstea gizartearen aintzatespenaren seinale argia izango litzateke eta horrek emakumeak hainbat eremutan bistaratzeko lan garrantzitsua ekarriko luke berekin.

Txosten honetan aztertutako 19 organoetarik hirutan emakumeen presentzia %30-40koa da; eta bederatzitan, %15-25koa. Badaude gizonek bakarrik osaturiko 3 organo ere, honakook: Euskal Kulturaren Kontseilu Nagusia, Unibertsitateen Euskal Kontseilua eta Unibertsitate Irakaskuntzaren Koordinazio Kontseilua.

## 4.7. TAULA Aztertu diren eta Eusko Jaurlaritzaren sailei atxikirik dauden 19 lankidetza- eta koordinazio-organoen osaketa, sexuaren arabera

| IZENA | GIZONEZKOAK | | EMAKUMEZKOAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | |
| Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea | 17 | 81,0 | 4 | 19,0 | 21 |
| Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea | 16 | 80,0 | 4 | 20,0 | 20 |
| Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua | 4 | 80,0 | 1 | 20,0 | 5 |
| Euskadiko Eskola Kontseilua | 5 | 62,5 | 3 | 37,5 | 8 |
| Musika Irakaskuntzen Aholku Batzordea | 7 | 87,5 | 1 | 12,5 | 8 |
| Unibertsitateen Euskal Kontseilua | 4 | 100,0 | 0 | 0,0 | 4 |
| Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua | 5 | 100,0 | 0 | 0,0 | 5 |
| Ertzaintza Kontseilua | 9 | 90,0 | 1 | 10,0 | 10 |
| Turismoko Aholku Batzordea | 15 | 83,3 | 3 | 16,7 | 18 |
| Osasun Publizitatea Kontrolatzeko Batzordea | 12 | 75,0 | 4 | 25,0 | 16 |
| Minbiziaren Aholku Batzordea | 17 | 85,0 | 3 | 15,0 | 20 |
| Diabetearen Aholku Batzordea | 9 | 69,2 | 4 | 30,8 | 13 |
| Aho-hortzen Osasunaren Aholku Batzordea | 12 | 92,3 | 1 | 7,7 | 13 |
| Txertaketen Euskadiko Aholku Batzordea | 10 | 76,9 | 3 | 23,1 | 13 |
| Agiri Klinikoak Balioetsi, Hautatu eta Garbitzeko Batzordea | 6 | 60,0 | 4 | 40,0 | 10 |
| Euskal Kulturaren Kontseilu Nagusia | 7 | 100,0 | 0 | 0,0 | 7 |
| Euskararen Aholku Batzordea | 38 | 80,9 | 9 | 19,1 | 47 |
| Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordea | 7 | 77,8 | 2 | 22,2 | 9 |
| Lurralde Politikako Kontseilu Aholkularia | 19 | 95,0 | 1 | 5,0 | 20 |

ITURRIA: Emakunde eta organoak sortzeko eta antolatzeko arauak.

# 5

# ALDERDI POLITIKOAK ETA SINDIKATUAK

Alderdi politikoak eta sindikatuak funtsezko dimentsioak dira egungo demokrazietako parteharmen politikoko prozesuetan. Erakunde hauetako emakumeen presentzia nabarmen handitu da azken urteetan. Erakundeok aztertzea garrantzitsua da. Izan ere, gizon eta emakumeak erabakia hartzeko eremuetara (erakundeetara, gobernura eta abarretara) sartzeak haien presentziarekin eta beroriek erakundeotan duten eginkizunarekin zerikusi handia du.

## ALDERDI POLITIKOAK 5.1

Alderdi politikoak sistema politikoak itxuratzeko funtsezko elementuak dira. Gizarte zibilaren eta erakundeen arteko sail bitartekari gisa dabiltza eta elite politikoak biltzeko egitura eztabaidaezinak dira. Ildo horretatik, erakundeotako emakumeen presentzia eta ausentziak neurri handi batean zehazten du beste erabaki-erakunde batzuetako haien ordezkaritza.

Gizon eta emakumeen alderdi politikoetako presentziak zenbait aldaketa izan ditu azken hamarkadan. Orokorrean esan daitekeenez, EAEko alderdi guztietako gobernuetako eta afiliazioetako gizonezkoen proportzioa emakumeena baino handiagoa da. Hala ere, emakumeen presentzia azken urteetan organootariko gehienetan garrantzia hartzen joan da.

Afiliazioari dagokionez, horri buruz egindako ikerketa urrietan egiaztatu dute ezen afiliatuen artean emakumeen kopurua gizonezkoena baino askoz txikiagoa dela alderdi politikoetan orotan. Alabaina, emakumeen afiliazioko presentziak gobernukoak baino portzentaje altuagoak agertu ditu. 1995eko datuen arabera, emakumeek afiliazioaren laurdena gainditurik dute EAEko alderdi politiko guztietan. Emakumeen Eusko Alkartasuneko eta Alderdi Popularreko afiliazioko portzentajea %40 ingurukoa da.

**5.1. TAULA Emakumeak eta gizonak Euskal Autonomia Erkidegoko alderdietako afiliazioetan (1995)**

| | EMAKUMEZKOAK | % | GIZONEZKOAK | % | AFILIAZIOA GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| PNV | 8.697 | 27,2 | 23.277 | 72,8 | 31.974 |
| EA | 5.810 | 39,3 | 8.982 | 60,7 | 14.792 |
| HB | - | 30,0 | - | 70,0 | - |
| PSE | 2.791 | 29,4 | 6.709 | 70,6 | 9.500 |
| IU-EB | 253 | 23,0 | 847 | 77,0 | 1.100 |
| PP | 953 | 41,2 | 1.361 | 58,8 | 2.314 |
| UA | 252 | 26,7 | 693 | 73,3 | 945 |
| **GUZTIRA** | **18.756** | **30,9** | **41.869** | **69,1** | **60.625** |

ITURRIA: Elizondo, Arantxa (1999): *Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoetako emakumeen presentzia.* Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Ezberdintasuna handiagoa da betearazpen mailetan, zeinetako portzentajeak jaisteko joera duten diren afiliazioen aldean, kuota-sistema erabiltzen duten alderdietan izan ezik. EAEko alderdietako gobernuei buruzko datuek taldeen arteko ezberdintasun nabarmenak erakusten dituzte: PSE-EEk agertzen du portzentajerik orekatuena (%47,6). Bigarrena Alderdi Popularra da portzentajean (%38,3). Eusko Alkartasunean bakarrik da haren gobernuko burua emakumea. Kargu hori azken bost urteetan bete du. Hori bereziki garrantzitsua da, EAEko alderdi politiko batean buruaren kargua bete duen emakume bakarra baita.

Kontrako muturrean EAJ nabarmendu da. Egun bere organo betearazlean bi emakume ditu, guztietarik %14,3. Hori da alderdi honetako gobernuak azken urteetan iritsiriko portzentajerik altuena. Gainera, nabarmendu behar denez, emakumeotariko batak idazkari nagusiaren kargua betetzen du eta, halaber, alderdiaren buru-batzarreko bozeramalea da.

## 5.2. TAULA Emakumeak eta gizonak EAEko parlamentu-ordezkaritzadun alderdien organo betearazleetan. 2004

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| EAJ-PNV | 14 | 2 | 14,3 | 12 | 85,7 |
| EA | 12 | 4 | 33,3 | 8 | 66,7 |
| BATASUNA * | 32 | 9 | 28,1 | 23 | 71,9 |
| PSE-EE | 21 | 10 | 47,6 | 11 | 52,4 |
| IU-EB* | 14 | 5 | 35,7 | 9 | 64,3 |
| PP* | 60 | 23 | 38,3 | 37 | 61,7 |
| **GUZTIRA** | **153** | **53** | **34,6** | **100** | **65,4** |

ITURRIA: Alderdi politikoek eurek eman edo berorien web orrialdeetatik hartutako datuetatik abiaturiko elaborazio propioa.

Oharra: Izartxoa (* ) ondoan jarri diegun alderdiei buruzko datuak 2002koak dira.

## 5.3. TAULA EAEko parlamentu-ordezkaritzadun alderdien organo betearazleetako buruen sexua. 2004



| ALDERDIA | LEHENDAKARITZA |
|---|---|
| EAJ-PNV | Gizona |
| EA | Emakumea |
| BATASUNA | Gizona |
| PSE-EE | Gizona |
| IU-EB | Gizona |
| PP | Gizona |



ITURRIA: Alderdi politikoek eurek eman edo berorien web orrialdeetatik hartutako datuetatik abiaturiko elaborazio propioa.

# SINDIKATUAK 5.2

Gizon eta emakumeen ordezkapenak, EAEko sindikatuen zuzendaritza-organoetakoak, alderdienetakoaren antzeko bideari jarraitzen dio. Emakumeak betidanik baztertuta egon dira sindikatuen mundutik, ordaindutako lanean gutxiago egon baitira. Alabaina, azken urteetan euskal sindikatuen egituretan eta zuzendaritza-organoetan berrikuntza txikiak gertatzen izan dira. Beraien bitartez, haien zuzendaritza-organoetan emakume gehiago sartu dira eta berdintasuna eta genero-perspektiba erantsi zaizkie haien barneko eztabaidei eta aldarrikapenei.

EAEko sindikatu nagusien organo betearazleetako emakumeen presentzia, orokorrean, alderdi politikoenetakoena baino txikiagoa da, nahiz eta azken urteetan nabarmen handitu den. Ildo horretatik, LAB sindikatuaren zuzendaritza eta STEE-EILAS sindikatuarena nabarmendu behar dira. Izan ere, lehenengo sindikatuaren zuzendaritzak 2004ko maiatzean bere azken biltzarra izan zuen eta harrezkero zuzendaritza parekidea du; eta Hezkuntzaren munduari loturiko STEE-EILAS sindikatuaren zuzendaritzan azken urteetan emakume gehiago egon dira. Aurrerapenak gorabehera, aipaturiko kasu guztietan sindikatuaren Idazkaritza Nagusia gizonezko batek betetzen du.

**5.4. TAULA Emakumeak eta gizonak EAEko sindikatu nagusien zuzendaritzetan. 2004**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| ELA | 12 | 3 | 25,0 | 9 | 75,0 |
| CC.OO. | 25 | 8 | 32,0 | 17 | 68,0 |
| LAB | 10 | 5 | 50,0 | 5 | 50,0 |
| UGT | 9 | 2 | 22,2 | 7 | 77,8 |
| STEE-EILAS | 17 | 8 | 47,1 | 9 | 52,9 |
| **GUZTIRA** | **73** | **26** | **35,6** | **47** | **64,4** |

ITURRIA: Sindikatuek eurek eman edo berorien web orrialdeetatik hartutako datuetatik abiaturiko elaborazio propioa.

# 6

# ESKU-HARMEN PUBLIKOA

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko herri politikak erakundeen esku-harmeneko goranzko eremuak dira. Berdintasun-politikak era berekoak dira beraien edukiei, ezarpen-erritmoari, aurretik ikusitako helburuei eta lortutako emaitzei dagokienean. Alabaina, apurka-apurka eta progresiboki orokortu dira gure inguruko erakunde-eremuetan. Prozesu horren bitartez, berdintasunaren aldeko ekimenak gehiagotu eta berdintasunari begirako egiturak sortu dira.

Txosten honetan berdintasunaren aldeko esku-harmen publikoari buruz erabilitako adierazleek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan horrelako jarduketak nola garatzen diren erakusteko balio dute, oro har izanik ere. Horrela, alde batetik, ildo horretatiko legebiltzarreko jarduera bildu da, eta, bestetik, euskal herri administrazioek hiritarrek parte hartzeko abiarazitako mekanismoak eta berdintasun-planak.

## LEGEBILTZARREKO EKIMENAK 6.1

Parlamentuak ez dira ordezkari hutsak eta herri politikak egiteko eginkizun garrantzitsua betetzen dute; egin-eginean ere, esku-harmen publikoa aztertzeko leku pribilegiatua dira. Hortaz, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari begirako parlamentu-jarduera gai honen agenda politikoko presentziaren adierazlea izan daiteke. Ildo horretatik, txosten honetan errepasatuta daude Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako zerrendako ekimenak. Bereziki azpimarratu dira azken legealdian eztabaidatu direnak.

Eusko Jaurlaritza 1980an sortu zen eta orduz geroztik bertan guztira 19.704 ekimen aurkeztu dira, zeinetarik 104 bakarrik ziren gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoak. Horrek berekin dakarrenez, legebiltzarrak jarduten daramatzan hogeita lau urteetan sexuen arteko berdintasunari begirako lana legebiltzarreko lanaren %0,52 bakarrik izan da.

Berdintasunari begirako legebiltzarreko jarduera ez da denboran etengabea izan eta ezin daiteke hitz egin gehikuntza progresiboaz, ez kualitatiboki ez kuantitatiboki. Ekimenak bereziki ugari dira V. legealdian (guztira 33) eta egungo legealdian (orain arte 45 ekimen).

### 6.1. TAULA Legebiltzarreko ekimen kopurua, Eusko Legebiltzarraren legealdien eta funtzioaren arabera

| LEGEBILTZARRAREN FUNTZIOA ETA EKIMEN MOTA | I. LEGEALDIA | II. LEGEALDIA | III. LEGEALDIA | IV. LEGEALDIA | V. LEGEALDIA | VI. LEGEALDIA | VII LEGEALDIA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| LEGEGINTZA-FUNTZIOA | | | | | | | | |
| Lege-proposamenak | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 2 |
| BULTZATZE-FUNTZIOA | | | | | | | | |
| Legekoak ez diren proposamenak | | | | | | | | |
| Erakundeen adierazpenak | | | | | | | | |
| Proposamenak eta Ebazpenak | 2 | 0 | 1 | 1 | 12 | 0 | 11 | 27 |
| KONTROL- ETA INFORMATZE--FUNTZIOA | | | | | | | | |
| Galderak | | | | | | | | |
| Interpelazioak | | | | | | | | |
| Agertzeak | 5 | 2 | 3 | 5 | 16 | 1 | 34 | 66 |
| HITZARMENAK ONESTEA | 0 | 0 | 0 | 5 | 5 | 0 | 0 | 10 |
| **GUZTIRA** | **7** | **2** | **5** | **11** | **33** | **1** | **45** | **104** |

ITURRIA: Eusko Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzuarengandik abiatuta guk egina. <parlamento.euskadi.net> Bertan sarturik daude Legebiltzarraren Erregistroan 2004.06.10era arte aurkeztutako ekimenak.

Aurkeztutako ekimenen kopurua ez ezik, adierazi behar da berorien lerruna. Sexuen arteko berdintasunari buruzko legebiltzarreko jarduerak gobernu kontrolaren funtzioa bete du bereziki. Ildo horretatik, aurkeztutako ekimenik gehienak (guztira 66) kontrol-ekimenak izan dira: galderak, interpelazioak, informatzeko eskabideak eta agerraldiak. Bigarrenik, Eusko Legebiltzarrak bultzatze-funtzioa bete du; izan ere, hortxe ditugu legekoak ez diren proposamenak eta erakundeen adierazpenak, bosgarren legealdiaz geroztik bereziki ugari izan direnak. Hala ere, legegintzako jardue-

ra bera, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari begirakoa, txiki-txikia izan da. 24 urteotan Legebiltzarrean lege-proposamen bakarra onetsi da, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzkoa zehazki. Ildo horretatik nabarmendu behar denez, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunari buruzko Lege-aurreproiektu bat dago, aurreikusitakoaren arabera legealdi honetan legebiltzarreko tramiteak egingo zaizkiona.

VII. Legealdiaren kasu zehatzean, Eusko Legebiltzarrean sexuaren arteko berdintasunari eta emakumeen gizarteko egoerari buruz 45 ekimen aurkeztu dira oraingoz. Legebiltzarrak betetzen dituen funtzioak kontutan harturik, bakarra dagokio garrantzitsuenari, legegintzako funtzioari alegia. Bultzatze-funtzioa 11 ekimenek betetzen dute. Beraietarik 8 legekoak ez diren eta hainbat gairi (landa-eremuari, banantzeari eta dibortzioari, indarkeriari, eusteko moduko garapenari eta abarri) buruzkoak dira. Kontrolatu eta informatzeko funtzioari dagokionez, 34 ekimen daude. Beraien artean galderak eta interpelazioak nabarmentzen dira. Beraietarik gehienak Ekintza Positiborako III. Plana betetzeari buruzkoak dira. Agertzeek edo agerraldiek, ostera, hainbat gai izan dituzte ardatz, hala nola, emakumeen kontrako indarkeria, emakumeen beste herri batzuetako egoera eta Osasun Sailaren aldetiko ginekologi arreta. Nabarmentzekoa denez, 2004ko maiatzean Emakume eta Gazteria Batzordearen baitan genero-indarkeriari buruzko txostena sortu da, Legebiltzarrak urte bereko martxoan gaiari buruz onetsi duen proposamen legekoa ez denaren ondorioz.

## 6.2. TAULA Eusko Legebiltzarrak berdintasunari eta emakumeei buruz tramitaturiko ekimenak, ekimen motaren eta alta dataren arabera (VII. Legealdia)

| MOTA | IZENBURUA |
|---|---|
| LEGE-PROPOSAMENA | - PP-k Eusko Jaurlaritzaren lege-aurreproiektuak eta arau erregelamenduak egiteko prozeduran genero-eragina sartzeari buruz aurkezturikoa. (2004.04.21). Gaitz iritzia |
| LEGEKOAK EZ DIREN PROPOSAMENAK | - Elikagai-pentsioen kobrantza bermatzekoa. (2003.02.18)<br>- Landa-eremuko emakumeen plan zehatzari buruzkoa. (2002.03.12)<br>- Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko neurriei buruzkoa. (2002.06.05)<br>- Eusteko moduko garapeneko emakumeen prestakuntzari eta presentziari buruzkoa. (2002.10.30)<br>- Genero aldagaiari buruzkoa. (2003.02.18)<br>- Banantzeko eta dibortziatzeko epaiak ez betetzearen egoerari buruzko azterketari buruzkoa. (2003.03.25)<br>- Lana eta familia uztartzeko politikei buruzkoa (2003.11.04)<br>- Genero-indarkeriaren aurka jotzeko neurrien plana egiteari buruzkoa. (2004.02.10) |
| ERAKUNDEEN ADIERAZPENA | - Emakumeen Afganistango egoerari buruzkoa. (2002.03.15) |
| EBAZPENAK ETA PROPOSAMENAK | - Irungo eta Hondarribiko Alardeei buruzko gatazkaren gainekoa. (2003.06.25)<br>- Genero-indarkeriari buruzkoa (2004.05.05.) |
| INFORMARTZEKO ESKABIDEA | - EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planeko 2001eko jarduketa programari buruzkoa. (2002.01.29)<br>- EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planeko 2000ko jarduketa programa ebaluatzeari buruzkoa. (2002.02.12) |
| GALDERAK ETA INTERPELAZIOAK | - EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planari buruzkoa. (2002.29.01)<br>- EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren IIIA helburuari buruzkoa. (2002.29.01)<br>- EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planeko 3.1.2.4 ekintzari buruzkoa . (2002.02.05) (05.02.2002)<br>- EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planeko 3.10,30,3 ekintzari buruzkoa . (2002.02.05) (05.02.2002)<br>- EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren 2000ko eta 2001eko aurrekontu-burutzapenari buruzkoa. (2002.02.12)<br>- III. EEEPPean aipaturik dauden eta diru-laguntzak jaso dituzten proposamenen markoko esperientziak eta ikerketak egin eta zabaltzeko proiektuen nortasunari buruzkoa. (2002.02.12)<br>- Diru-laguntzak jaso dituzten emakumeak sustatzea xede eta jarduketa eremu duten fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko emakume elkarteen nortasunari buruzkoa. (2002.02.12)<br>- Genero-indarkeriari buruzko jabeldura. (2002.05.15)<br>- Gizon eta emakumeen arteko aukera- eta tratu-berdintasunerako legeari buruzkoa. (2002.06.05) |

| | |
|---|---|
| | - Goi-karguei buruzkoa. (2002.06.05)<br>- Emakumeentzako Ekintza Positiborako Programari buruzkoa. (2002.06.05)<br>- Ertzaintzak tratu txarrak salatzen dituzten emakumeei emandako arretari buruzkoa. (2002.09.10)<br>- Herrizaingo Sailak etxeko indarkeriaren biktimentzat segurtasun-planean mahaigaineraturiko neurriei buruzkoa. (2002.12.03)<br>- Bai inkestetan bai emaitza taulatuetan egiten dituzten ikerketei genero aldagaia eransterakoan erabiltzen den metodoari buruzkoa (2003.04.11)<br>- "Gipuzkoa 2020 hausnarketa estrategikoko prozesua" (2003.04.11)<br>- Tratu txarren kontrako nazioarteko eguna ospatzeari buruzkoa. (2003.10.23)<br>- Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunerako legeari buruzkoa. (2004.02.24)<br>- Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek babes ofizialeko etxebizitzak atzitzeko planari buruzkoa (2004.06.01)<br>- Emakumeen osasuna prebenitzeko programei buruzkoa (2004.09.01) |
| AGERTZEAK | - Afganistango egoerari eta, bereziki, bertako emakumeenari buruzko informazioa ematekoa. (2002.02.19)<br>- Emakundek emakumeentzako tratu txarrak prebenitu eta berorien kontra borrokatzeko harturiko neurrien berri jakinaraztekoa. (2002.06.05)<br>- Karen Musalo USAko San Franciscoko Hasting Unibertsitateko Generorako Zentro eta Aterpetxeko zuzendari andreak bera buru duen Zentroak burutzen dituen jarduerei buruzko txostenaren berri jakinaraztekoa. (2001.11.08)<br>- Bakearen aldeko mugimenduen berri jakinaraztekoa: Beltzezko Emakumeak eta Jerusalem Link. (2002.05.16)<br>- Emakumeen kontrako etxeko eremuko indarkeriari buruzko gaiaren gaineko ofiziozko txanda eta gainerako jarduketak azaltzekoa. (2002.06.20)<br>- "Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana burutzeko herri botereen 2001eko jarduketari buruzko memoria"ren eta "EAEko gizon eta emakumeen egoerari buruzko 2001eko kopuru"en berri jakinaraztekoa. (2002.07.049)<br>- Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana burutzeko herri botereen 2002ko jarduketari buruzko memoria"ren eta "EAEko gizon eta emakumeen egoerari buruzko 2002ko kopuru"en berri jakinaraztekoa (2003.09.19)<br>- Osasun Sailak osasunari eta hainbat ginekologi patologia prebenitzeari buruz dituen politikak azaltzeko (07.05.2004)<br>- Palestinar emakumeen lurralde okupatuetako egoeraren berri jakinaraztekoa. (2004.02.04)<br>- Emakumeen Palestinako egoeraren berri jakinaraz dezaten (25.06.2004)<br>- Genero-indarkeria aztertzekoa (2004.10.06) |
| TXOSTENAK | Aparteko txostena: Emakumeen kontrako indarkeriarekiko EAEko erakundeen erantzuna". (2004.10.06) |

ITURRIA: Eusko Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzuaren datuak abiapuntu hartuta guk egina. Bertan sarturik daude Legebiltzarraren Erregistroan 2004.06.10era arte aurkeztutako ekimenak.

## BERDINTASUN PLANAK 6.2

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko herri politikak progresiboki ezartzeko erabiliriko funtsezko tresnetarikoak izan dira Ekintza Positiborako eta Aukera Berdintasunerako Planak. Euskal Autonomia Erkidegoan Emakundek egindako Ekintza Positiboko I. Plana 1991n jarri zen indarrean, eta egun indarrean dagoena 1999ko abenduan onetsitako III. Plana da.

Tresna horien erabilpena apurka-apurka zabaltzen joan da beste gobernu maila batzuetara, eta berdintasun-planak onetsi dira bai foru mailan bai udal mailan. Udal erakundeak izan ziren autonomi adibideari jarraitzen lehenengoak eta lehenengo foru plana 1999an onetsi zen. Arabako Foru Aldundia zentzu horretan aitzindari izan zen 1999an, eta hurrengoa Bizkaiko Foru Aldundia izan zen (2000). Oraintsuago, 2003an, Gipuzkoako Aldundiak ere bere lehenengo berdintasun-plana onetsi zuen.

Berdintasunerako programa edo plana onetsi duten toki erakundeen kasuan egiaztatu da ezen kopurua azken urteetan oso handitu dela. Bilbo, Donostia eta Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetako udal herri administrazioez gain, beste 37 udalerrik badute berdintasun-plana. Udalotariko gehienek beren plana 2001az geroztik onetsi dute, baina badira berdintasunerako programetan tradizio handiagoa duten udalerri bakan batzuk ere, dagoeneko beren II. Plana abiarazi dutenak.



## 6.3. TAULA Berdintasun Plana duten Udalak eta Foru Aldundiak

| UDALERRIA | PLANA ONETSI DEN DATA | BIZTANLEAK |
|---|---|---|
| Ermua | 1999ko maiatzaren 5a (II. Plana) | 16.795 |
| Bilbo | 2003ko otsailaren 27a (II. Plana) | 349.972 |
| Eibar | 1995eko martxoaren 11 | 28.219 |
| Donostia | 1997ko martxoaren 13an. | 178.377 |
| Hondarribia | 1997ko maiatzaren 14an. | 15.044 |
| Arrasate | 1997ko ekainaren 13an. | 23.118 |
| Berriz | 1998ko otsailaren 5ean. | 4.312 |
| Santurtzi | 1998ko maiatzaren 18a | 47.173 |
| Gordexola | 1998ko abenduaren 30a | 1.511 |
| Vitoria-Gasteiz | 1999ko apirilaren 23a | 216.852 |
| Getxo | 1999ko apirilaren 30a | 82.285 |
| Zalla | 2000ko urtarrilaren 27a | 7.857 |
| Andoain | 2000ko martxoaren 2a | 13.814 |
| Barakaldo | 2000ko maiatzaren 25a | 94.478 |
| Berango | 2000ko ekainaren 13a | 5.311 |
| Balmaseda | 2000ko abenduaren 18a | 7.069 |
| Laudio | 2001eko urtarrilaren 29a | 18.931 |
| Mungia | 2001eko apirilaren 27a | 13.807 |
| Amurrio | 2001eko maiatzaren 24a | 9.460 |
| Zierbena | 2001eko maiatzaren 31 | 1.215 |
| Ondarroa | 2001eko maiatzaren 31 | 9.732 |
| Zaldibar | 2001eko maiatzaren 31 | 2.877 |
| Elorrio | 2001eko ekainaren 8a | 7.157 |
| Anoeta | 2001eko ekainaren 12a | 1.709 |
| Gernika-Lumo | 2001eko ekainaren 13a | 15.264 |
| Muskiz | 2001eko irailaren 27a | 6.558 |
| Irun | 2001eko azaroaren 28a | 56.601 |
| Urretxu | 2002ko urtarrilaren 28a | 6.550 |
| Basauri | 2002ko martxoaren 20a | 45.085 |
| Ortuella | 2002ko maiatzaren 30a | 8.684 |
| Guenes | 2002ko ekainaren 24a | 5.831 |
| Valle de Trápaga-Trapagaran | 2002ko abenduaren 30a | 12.621 |
| Portugalete | 2002ko abenduaren 30a | 56.441 |
| Azkoitia | 2003ko urtarrilaren 31 | 10.272 |

**6.3. TAULA Berdintasun Plana duten Udalak eta Foru Aldundiak (jarraipena)**

| UDALERRIA | PLANA ONETSI DEN DATA | BIZTANLEAK |
|---|---|---|
| Abanto eta Zierbena | 2003ko otsailaren 17a | 9.731 |
| Hernani | 2003ko maiatzaren 16a | 18.671 |
| Zegama | 2003ko ekaina | 1.307 |
| Galdakao | 2003ko maiatzaren 22a | 29.569 |
| Azpeitia | 2004ko maiatzaren 6a | 13.740 |
| Zarautz | 2004ko abuztuaren 31 | 21.078 |
| **Guztira** | **40 udalerri** | **1.475. 078** |
| **EAE, GUZTIRA** | **250 udalerri** | **2.082.587** |
| % | **%16** | **%70,82** |
| | | |
| FORU ALDUNDIAK | | |
| Arabako Foru Aldundia | 1999ko otsailaren 16a | 286.387 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 2000ko maiatzaren 30a | 1.122.637 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 2003ko apirila. | 673.563 |

ITURRIA: EMAKUNDE.

Egun berdintasun-plandun udalerrien portzentajea %16koa da eta udal horiek batera EAEko biztanleriaren %70,82 harturik dute barnean. Hala ere, adierazi behar da ezen plan gehiago oneste hau beharrezkoa dela baina ez dela nahikoa toki mailan berdintasunerako programak benetan eta etengabe abiarazteko.

Berdintasun-plan askoren ebaluazioek erakutsi dutenez, haiek arrakasta izateko funtsezkoa da proposatutako jarduerak bultzatu ahal dituzten langile espezializatuak izatea. Berdintasuneko teknikari edo eragileentzako plazak modu desberdinean sortu dira euskal udalerrietan. Zenbait udalerrik figura horren beharra kontutan hartu dute, baina askotan inoizkako langileak hartu dituzte eta, beroriek ezin izan dute plana garatu eta ezartzen jarraitzerik bermatu.

**6.4. TAULA Berdintasunean espezializaturiko teknikari egonkorrak dituzten udalak. 2004**

| LURRALDE HISTORIKOA | UDALERRIA |
|---|---|
| ARABA | Vitoria-Gasteiz |
| BIZKAIA | Bilbao (*) |
| | Barakaldo |
| | Basauri |
| | Berriz |
| | Ermua |
| | Ondarroa |
| GIPUZKOA | Arrasate |
| | Eibar |
| | Hernani |

ITURRIA: Emakundek emandako datuak abiapuntu hartuta guk egina.

Oharra: Bilboko Udalean plaza onetsirik dago baina ez da orain arte bete.

## BERDINTASUN KONTSEILUAK 6.3

Erakundeen esku-harmenari dagokionez, hiritarrek herri politikak garatzen parte hartu eta adostasuna lortzeko dauden estrategia berriak aipatu behar dira nahitaez. Estrategia horiek gauzatzeko, hiritarrek administrazioaren erabakiak hartzen parte hartzea eta itauntzea bideratzeko guneak sortu behar dira bereziki. Hain zuzen ere, berdintasunerako politiken kasuan, emakumeek parte hartu eta botereratzea sarritan

berezko helburua izaten da. Horregatik, parte hartzeko guneak sortzea oso da garrantzitsua gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako.

EAEko autonomi mailan 1993az geroztik Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko Kontsulta Batzordea dago, emakume elkarteen arteko komunikazio-markoa ezarri, euskal gizarteko emakumeen eginkizuna eraldatze saihestezina ahalbidetu eta errazten duten proposamenak, kritikak eta ekarpenak egiteko amankomuneko gunea sortu eta emakumeen parteharmen aktiboagoa sustatu eta sustatzen duena. Elkartegintza-mugimenduaren hamabi (lurralde historiko bakoitzeko lau) ordezkarik eta erakundearen beraren bost ordezkarik osatuta dago batzordea.

Lurralde edo foru mailan emakumeek parte hartzeko guneak sortzea oraintsukoagoa da: Arabako Aukera Berdintasunerako Batzordea; eta Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako Gunea, Bizkaiko Foru Aldundikoa. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldiz, ez du horrelako gunerik bultzatu. Bizkaiko kasuan, ezaugarri bereiziak dituen eta esku hartzeko hainbat eremutan lan egiten duen taldearen parteharmenezko beste esperientzia bat nabarmendu behar da; Parekatuz Erakunde Sareaz ari gara.

Udal eremuan, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari begira parte hartzeko guneak gehiagotuz joan dira azken urteetan. Egun EAEko 11 udalerrik horrelako organoa dute. Ermua udalerria zentzu horretan aitzindaria izan zen, 1991n Emakumearen Kontseilua sortu baitzuen. Gainerako udalerrietan gehienak azken bost urteetan sortu dira. Haien artean bi hiriburu dira, eta EAEn dauden eta biztanlerik gehien duten udalerrietako bi (Getxo eta Barakaldo). Bilbok, Erkidegoko biztanlerik gehieneko udalerria izan arren, ez du oraingoz horrelako organorik izan, baina egun antzeko gunea eratu eta sendotzen ari da.

Udalerri horiek guztiek berdintasunerako plana onetsirik dute eta gehienek, gainera, antolakuntza-egitura egonkorra dute, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiten duena.

## 6.5. TAULA Sexuen arteko berdintasunari buruzko partaidetzazko gunea duten Udalak. 2004

| LURRALDE HISTORIKOA | UDALERRIA |
|---|---|
| ARABA | Vitoria-Gasteiz |
| BIZKAIA | Barakaldo |
| | Basauri |
| | Ermua |
| | Getxo |
| | Ondarroa |
| GIPUZKOA | Donostia |
| | Arrasate |
| | Eibar |
| | Hernani |
| | Azkoitia |

ITURRIA: Martínez Hdez, Eva (2004): "Hiritarrek berdintasunerako politiken inguruan parte hartzeko mekanismoak: EAEko toki administrazioko esperientzia", *Euskadiko VI. Soziologi Biltzarrean.*

# 7

# JARRERAK ETA JOKABIDE POLITIKOA

Gizarte zehatz baten jarrerak eta jokabide politikoa adierazteko adierazle nagusietariko bat bertako biztanleriaren politikarekiko interesa da. EAEko kasuan, Euskobarometro inkestako datuei jarraiki, politika oso edo nahiko interesatzen zaiela esan duten pertsonarik gehienak gizonezkoak izan dira (%56 inguru). Joera alderantzizkoa da politika urriki interesatzen zaiela edo batere interesatzen ez zaiela azaldu dutenen kategorietan: emakumeak %53,3 eta %56,3 dira, hurrenez hurren.

**7.1. GRAFIKOA Politikarekiko interesa, sexuaren arabera (2004). Portzentaje horizontalak**




ITURRIA: Euskobarometro inkesta, 2004ko maiatzekoa.

Datuok adin-taldetan banakatzen baditugu, politika oso edo nahiko interesatzen zaiela esan duten gizonen proportzioa, orokorrean, adin-taldeetan orotan, emakumeena baino handiagoa dela ikus dezakegu. Politika nahiko interesatzearen kategorian are handiagoak dira ezberdintasunak: kategoria horretan gizonen portzentajeak %35etik gorakoak dira adin-talde ia guztietan, eta emakumeenak askoz txikiagoak ditugu.

**7.1. TAULA Politikarekiko interesa, sexuaren eta adinaren arabera (2004). Portzentaje bertikalak**

| | EMAKUMEAK | | | | | GIZONAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ADINA | 18-24 | 25-34 | 35-49 | 50-64 | >65 | 18-24 | 25-34 | 35-49 | 50-64 | >65 |
| Handia | 5,6 | 4,3 | 9,1 | 2,6 | 5,8 | 8,6 | 5,4 | 10,0 | 8,4 | 3,5 |
| Nahikoa | 33,6 | 25,5 | 25,0 | 33,2 | 22,5 | 30,2 | 38,2 | 37,4 | 35,8 | 33,1 |
| Urria | 40,5 | 46,7 | 43,7 | 36,8 | 37,6 | 38,1 | 38,7 | 33,0 | 34,6 | 38,7 |
| Interesik eza | 20,7 | 23,4 | 22,2 | 27,4 | 34,1 | 22,9 | 17,7 | 19,6 | 21,2 | 24,6 |
| **GUZTIRA** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

ITURRIA: Euskobarometroa, 2004ko ekaina.

Alderdiekiko identifikazioari dagokionez, Euskal Soziometroaren emaitzek ez dute inkesta egin zaien pertsonen sexuari dagokioneko ezberdintasun handirik agertzen. Adieraztekoa denez, hiru puntuko aldea dago PSErekin eta Ezker Abertzalearekin bat egiten duten pertsonen portzentajeetan: %16 emakumek eta %13 gizonek uste dute ezen PSE dela ondoen ordezkatzen dituena. Ezker abertzaleari buruz gauza bera 100eko 6 emakumek eta %9 gizonek uste dute.

**7.2. TAULA "Ni bezalako jendearen ideiak ondoen ordezkatzen dituen alderdia", sexuaren arabera. Portzentaje bertikalak.**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| PNV | 25 | 26 | 24 |
| PSE-EE | 15 | 16 | 13 |
| PP | 9 | 9 | 10 |
| IU-EB | 8 | 7 | 9 |
| Ezker Abertzalea | 7 | 6 | 9 |
| EA | 4 | 4 | 5 |
| Aralar | 3 | 3 | 4 |
| UA | 0 | 0 | 0 |
| Denok berdinak | 2 | 2 | 2 |
| Bat ere ez. | 20 | 21 | 19 |
| ED/EE | 6 | 7 | 6 |
| **GUZTIRA** | **100** | **100** | **100** |

ITURRIA: Soziologi Prospekzioetarako Kabinetea. Euskal Soziometroa, 24. 2004ko apirila.

Lider politikoei buruzko balorazioak ez du orokorrean sexuaren araberako ezberdintasun handirik agertzen. Horrela, ondoen ikusitako liderra, eta, baita, "nahikoa" gainditu duen bakarra, Juan José Ibarretxe lehendakaria da, batez beste emakumeek 5,3ko nota eta gizonek 5,2ko nota eman diotena. Emakumeek, orokorrean, liderrentzako puntuazio altuagoak agertzen dituzte, hiru lider salbuespen dituztelarik: Patxi Zabaleta, Gaspar Llamazares eta Arnaldo Otegi. Beraien salbuespenezko liderrontzako kalifikazioak gizonek emandakoak baino hiru eta lau hamarren gutxiagokoak dira.

**7.3. TAULA Lider politikoei buruzko balorazioa, 0tik 10erako eskalakoa. Sexuaren araberako batezbestekoak**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| Juan José Ibarretxe | 5,3 | 5,3 | 5,2 |
| Josu Jon Imaz | 4,7 | 4,8 | 4,7 |
| Begoña Errazti | 4,0 | 4,1 | 3,9 |
| Javier Madrazo | 4,0 | 4,0 | 4,0 |
| Patxi Zabaleta | 3,7 | 3,5 | 3,8 |
| Gaspar Llamazares | 3,4 | 3,3 | 3,6 |
| Patxi López | 3,1 | 3,1 | 3,1 |
| José Luis R. Zapatero | 3,1 | 3,2 | 3,1 |
| Arnaldo Otegi | 2,6 | 2,4 | 2,8 |
| José María Aznar | 2,0 | 2,0 | 1,9 |
| Mariano Rajoy | 2,0 | 2,0 | 1,9 |
| Carlos Iturgaitz | 1,7 | 1,8 | 1,6 |
| Enriqueta Benito | 1,5 | 1,5 | 1,5 |

ITURRIA: Soziologi Prospekzioetarako Kabinetea. Euskal Soziometroa, 24. 2004ko apirila.

2004ko martxoko hauteskundeen ostean finkaturiko Estatuko gobernuak izan behar dituen lehentasunei dagokienean, gizon eta emakumeak elkarrekin bat datoz: lehenik, gehienak enpleguak kezkatzen ditu, eta, bigarrenik, etxebizitzak. Gizon eta emakumeen arteko aldeak gehien jota bi puntukoak dira, baina honako salbuespen argi eta esanguratsu hau ikus daiteke: emakumeen %45en ustetan, emakumeen kontrako

indarkeriak gobernuaren lehentasunezko gaia izan beharko luke. Hori uste duten gizonen portzentajea txikiagoa da, %28koa.

**7.4. TAULA "Espainiako Gobernu berriak lehentasuna eman behar dien gaiak", sexuaren arabera. Portzentaje bertikalak**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| Guztientzako lana | 68 | 67 | 68 |
| Erosteko moduko etxebizitzak | 56 | 55 | 57 |
| Euskal arazoa | 45 | 45 | 45 |
| Emakumeen kontrako indarkeria | 36 | 45 | 28 |
| Giza eskubideekiko errespetua | 28 | 27 | 28 |
| Hezkuntza eta Osasuna | 18 | 18 | 18 |
| Oposizioarekiko elkarrizketa | 12 | 11 | 13 |
| Ekonomi garapena | 10 | 8 | 12 |
| Ingurumena | 8 | 7 | 9 |
| Estatuko kulturak eta hizkuntzak | 6 | 5 | 7 |
| Espainiako batasuna bermatzea | 3 | 2 | 3 |
| Bestelakoak | 2 | 2 | 2 |
| ED/EE | 8 | 7 | 9 |

ITURRIA: Soziologi Prospekzioetarako Kabinetea. Euskal Soziometroa, 24. 2004ko apirila.

Elkartegintza bide garrantzitsua da hiritarrek gizartean eta politikan parte har dezaten. Bertan ere joera ezberdinak agertzen dituzte gizon eta emakumeek. Elkartegintza mundua errealitate jori eta askotarikoa da, oso talde ezberdinek osatua. Hala ere, gizonek askoz elkartekidetasun-indize altuagoak agertzen dituzte kasu ia guztietan.

EAEko kasu zehatzean, gehienak gizonak dira elkarte askotan. Gizonentzako eremuen artean honakook nabarmentzen dira: kirol elkarteak, alderdi politikoak eta sindikatuak.

**7.5. TAULA 16na urteko edo 16na urtetik gorako biztanleak, elkartekidetasuna kontutan hartuta, sexuaren arabera (portzentaje bertikalak)**

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|---|
| KIROL ELKARTEAK | | | |
| Kide da | 15,2 | 21,9 | 9,0 |
| Ez da kide | 84,8 | 78,1 | 91,0 |
| ELKARTE EKOLOGISTAK | | | |
| Kide da | 1,0 | 1,2 | 0,8 |
| Ez da kide | 99,0 | 98,8 | 99,2 |
| GASTRONOMIA ELKARTEAK | | | |
| Kide da | 3,3 | 5,7 | 1,1 |
| Ez da kide | 96,7 | 94,3 | 98,9 |
| KULTURA ELKARTEAK | | | |
| Kide da | 5,9 | 6,4 | 5,4 |
| Ez da kide | 94,1 | 93,6 | 94,6 |
| EMAKUMEEN ELKARTEAK | | | |
| Kide da | 1,2 | 0,1 | 2,2 |
| Ez da kide | 98,8 | 99,9 | 97,8 |
| LANBIDE ELKARTEAK | | | |
| Kide da | 3,4 | 4,1 | 2,7 |
| Ez da kide | 96,6 | 95,9 | 97,3 |
| ALDERDI POLITIKOAK/SINDIKATUAK | | | |
| Kide da | 6,9 | 10,6 | 3,4 |
| Ez da kide | 93,1 | 89,4 | 96,6 |
| BESTE TALDE BATZUK | | | |
| Kide da | 6,6 | 5,8 | 7,3 |
| Ez da kide | 93,4 | 94,2 | 92,7 |

ITURRIA: Eustat, Bizi-baldintzen gaineko 1999ko Inkesta.

EAEko biztanleriak hiritarrek parte hartzeko erabilitako denbora adierazle interesgarria da, Denbora Aurrekontuen Inkestak arestian aztertua. Pertsona parte-hartzaileen artean batez beste gizonek ordu 1 eta 36 minutu ematen dute egunean hiritarren parteharmenean interesik gabe, eta emakumeek 57 minutu. Gizonek eta emakumeek erakundeen bitartezko interesik gabeko lanean batez beste emandako denbora antzekoa da baina alde txikiak daude asteko egunaren arabera. Aitzitik, emakumeak

erakunde bitartezko lana deiturikoan nabarmentzen dira eta bertan batez beste ordu 1 eta 17 minutu ematen dute; eta gizonek, 37 minutu. Azken kategoria bi horien arteko ezberdintasunak handiak dira: erakundeko interesik gabeko lana deituriko kategorian sarturik erakundearen barruko barne motako borondatezko atazak daude, eta erakunde bidezko lana deituriko kategoriak kanpoko proiekzioko boluntarioak dakartza berekin, eta erakundearen jarduerari onura ateratzen dioten pertsonei zuzeneko arreta ematekoak.

### 7.6. TAULA Biztanle parte-hartzaileek hiritarrek zenbait lanez parte hartzeko emandako batezbesteko orduak. 2002-2003

| | | PARTE-HARTZAILEKO BATEZBESTEKO DENBORA | | |
|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| Hiritarren interesik gabeko parteharmena eta laguntzak | | | | |
| | **Guztira** | **1:21** | **1:36** | **0:57** |
| | Astelehen-osteguna | 1:21 | 1:32 | 0:48 |
| | Ostirala | 1:23 | 1:18 | 1:27 |
| | Larunbata | 2:33 | 2:54 | 1:39 |
| | Igandea | 0:40 | 0:43 | 0:37 |
| Erakundeko interesik gabeko lana | | | | |
| | **Guztira** | **2:29** | **2:29** | **2:29** |
| | Astelehen-osteguna | 2:03 | 2:13 | 1:20 |
| | Ostirala | 1:58 | 1:49 | 2:40 |
| | Larunbata | 6:50 | 7:53 | 4:59 |
| | Igandea | 2:27 | 2:00 | 2:37 |
| Erakunde bitartezko lana (pertsona hartzaileekiko zuzeneko lana) | | | | |
| | **Guztira** | **1:13** | **0:37** | **1:17** |
| | Astelehen-osteguna | 1:16 | 0:00 | 1:16 |
| | Ostirala | 1:08 | 0:50 | 1:20 |
| | Larunbata | 0:43 | 0:15 | 1:15 |
| | Igandea | **** | **** | **** |

ITURRIA: EUSTAT Denborari buruzko Aurrekontuen gaineko 2003ko Inkesta.

EAEn erregistraturik guztira 12.916 elkarte daude. Beraietarik 286 bakarrik dira emakume elkarteak, hau da, guztirakoaren %2,2. Elkarteon helburuak kontutan harturik, elkarteotarik gehienak (232, hau da, emakume elkarteen %81,11) "emakumea sustatzeko" kategorian daude, hau da, emakumeen bizi-kalitatea hobetzea bilatzen dute. Hurrengo kategoria talde feministei dagokie. Horrelako 36 talde daude EAEn, emakume elkarteen %12,59 direla.

### 7.7. TAULA Lurralde Historiko bakoitzean erregistraturiko emakume elkarteen kopurua, elkarte motaka (2000)

| | EAE | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|---|
| Emakumea sustatzea | 232 | 48 | 112 | 72 |
| Talde feministak | 36 | 8 | 16 | 12 |
| Ama ezkongeak | 4 | - | 4 | - |
| Etxeko andreak | 14 | 3 | 10 | 1 |
| **Emakume elkarteak guztira** | **286** | **59** | **142** | **85** |
| **Mota orotako elkarteak guztira** | **12.916** | **2.202** | **6.449** | **4.265** |

ITURRIA: Elkarteen Erregistroa (2000). Justizi, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Azkenik, euskal gizartean nabarmen finkatu diren elkarteak dira garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak (GGKEak). Eremu horretan emakumeen proportzioa handiagoa da kontrataturiko pertsonen kopuruan eta, batez ere, boluntarioen artean. Emakume boluntarioen kopurua gizonenaren bikoitza da.

**7.8 TAULA** **Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeetan (GGKEetan) elkarlanean aktiboki ari diren gizon eta emakumeak**

| | EMAKUMEAK | % | GIZONAK | % | EMAKUMEAK/ GIZONAK |
|---|---|---|---|---|---|
| Kontratatuak | 59 | 3,7 | 50 | 5,8 | 1,2 |
| Aldi baterakoak | 12 | 0,7 | 4 | 0,5 | 3,0 |
| Lankideak | 102 | 6,3 | 103 | 12,0 | 0,9 |
| Boluntarioak | 1.443 | 89,3 | 700 | 81,7 | 2,1 |
| **GUZTIRA** | **1.616** | **100,0** | **857** | **100,0** | **1,9** |

ITURRIA: Murguialday, Clara; Del Río, Amaia, Anitua, Estibalitz eta Maoño, Cristina (2000): Euskal GGKEetako genero-perspektibak. Emakume eta Garapen mintegia.

# 8

# SEXUEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO IRITZI PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzak azterketa 2004an egin zuen. Bertan zehazki jaso nahi zituen gaiari buruzko gizarte jarrerak (EAEko biztanleen iritziak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoak). Azterketa horren emaitzek erakusten dutenez, gizon baino emakume gehiagok uste dute ezen erakundeek sexuen arteko berdintasunaren alde jardun behar dutela. Hasteko, gai honi emandako garrantzia handiagoa da emakumeen artean: emakumeen ia erdien ustez (%49ren ustez), berdintasuna garrantzitsua da, eta gizonen %38ren iritzitan. Aldea ikasketa maila guztietako pertsonengan mantendu da, baina garrantzia maila igo ahala handitu da.

## 8.1. TAULA Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren garrantzia, sexuaren eta ikasketa mailaren arabera. Portzentaje bertikalak

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | IKASKETARIK GABEKOAK | LEHEN MAIL. | BIG. MAIL. | GOIK. | GIZONAK | IKASKETARIK GABEKOAK | LEHEN MAIL. | BIG. MAIL. | GOIK. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Handia | 43 | 49 | 44 | 44 | 52 | 59 | 38 | 28 | 34 | 37 | 48 |
| Nahikoa | 38 | 37 | 32 | 41 | 35 | 33 | 39 | 41 | 36 | 42 | 38 |
| Urria | 14 | 11 | 15 | 12 | 11 | 6 | 16 | 20 | 20 | 17 | 9 |
| Garrantzirik ez | 4 | 2 | 6 | 3 | 2 | 0 | 5 | 10 | 8 | 2 | 4 |
| ED/EE | 1 | 1 | 2 | 1 | 0 | 2 | 2 | 1 | 2 | 2 | 1 |
| **GUZTIRA** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

ITURRIA: Prospekzioetarako Kabinetea. EAEko biztanleen iritziak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoak. 2004ko martxoa.

Bizitza publikoan berdintasuna lortzeko jarduketa zehatzei ondo deritzete inkesta egin zaien pertsonarik gehienek, gizon baino emakume gehiagok baina: emakumeetarik %94 oso ados edo ados daude herri komunikabideek berdintasunaren alde jardun beharrarekin, eta %87k gizonek eta emakumeek politikan antzeko partea hartzea bermatzeko neurriak hartu beharraren inguruko beren adostasuna azaldu dute. Gizonei dagozkien portzentajeak %91koa eta %83koa dira, hurrenez hurren. Sexu bietan, adinak gora egin ahala urriagoa da azaldutako neurriekiko adostasun maila.

## 8.2. TAULA Bizitza publikoko berdintasunaren aldeko neurriekiko adostasun maila, sexuaren eta adinaren araberakoa. Portzentaje bertikalak

| | GUZT. | EMAKUMEAK | 15-17 urte | 18-29 urte | 30-45 urte | 46-64 urte | 65 edo gehiago | GIZONAK | 15-17 urte | 18-29 urte | 30-45 urte | 46-64 urte | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Herri komunikabideek gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde jardun behar dute* | | | | | | | | | | | | | |
| Oso ados edo ados | 93 | 94 | 96 | 96 | 96 | 95 | 90 | 91 | 90 | 95 | 92 | 88 | 85 |
| Ez bata ez bestea | 4 | 3 | 1 | 3 | 3 | 2 | 6 | 6 | 3 | 3 | 4 | 7 | 10 |
| Ados ez edo batere ados ez | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 2 | 0 | 2 | 1 | 2 |
| ED/EE | 2 | 2 | 3 | 1 | 1 | 2 | 5 | 3 | 5 | 2 | 2 | 3 | 4 |
| *Gizonek eta emakumeek politikan antzeko partea hartzea bermatzeko neurriak hartu beharra dago* | | | | | | | | | | | | | |
| Oso ados edo ados | 85 | 87 | 92 | 90 | 87 | 87 | 80 | 83 | 86 | 87 | 82 | 83 | 76 |
| Ez bata ez bestea | 9 | 8 | 3 | 6 | 7 | 9 | 11 | 10 | 5 | 9 | 8 | 11 | 15 |
| Ados ez edo batere ados ez | 4 | 3 | 1 | 3 | 4 | 2 | 3 | 5 | 4 | 2 | 9 | 4 | 4 |
| ED/EE | 3 | 3 | 4 | 2 | 3 | 2 | 6 | 2 | 6 | 2 | 1 | 2 | 5 |
| **GUZTIRA** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

ITURRIA: Soziologi Prospekzioetarako Kabinetea. EAEko biztanleen iritziak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoak. 2004ko martxoa.

Lan-eremuko berdintasunaren alde jarduteko hainbat neurrirekiko adostasun mailak antzeko joerak agertzen ditu sexuari eta adinari dagokienean. Emakumeetarik %95 eta gizonetarik %90 oso ados edo ados daude enpresek berdintasunerako neurriak hartu beharrarekin. Antzeko moduan, emakumeetarik %94 eta gizonetarik %92 ados daude Administrazioak emakumeen alokairu-bazterketa zuzentzeko lanean hertsikiago jardun beharrarekin. Portzentajeak urruntxoagoak dira emakumeek pertsonak zaintzeko lanengatik enplegua izateko arazorik ez izateko lege eta kontrol gehiagok egon beharko luketelako ideiaren aurrean: emakumeetarik %92 eta gizonetarik %86 ados daude baieztapen horrekin.

## 8.3. TAULA Lan-eremuko berdintasunaren aldeko neurriekiko adostasun maila, sexuaren eta adinaren araberakoa. Portzentaje bertikalak

| | GUZT. | EMAKUMEAK | 15-17 urte | 18-29 urte | 30-45 urte | 46-64 urte | 65 edo gehiago | GIZONAK | 15-17 urte | 18-29 urte | 30-45 urte | 46-64 urte | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Enpresek gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako neurriak abiarazi beharko lituzkete* | | | | | | | | | | | | | |
| Oso ados edo ados | 93 | 95 | 93 | 96 | 97 | 97 | 90 | 90 | 88 | 95 | 93 | 88 | 83 |
| Ez bata ez bestea | 4 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 6 | 6 | 3 | 4 | 8 | 10 |
| Ados ez edo batere ados ez | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 2 | 3 | 2 | 2 | 1 | 2 |
| ED/EE | 2 | 2 | 5 | 1 | 1 | 1 | 7 | 2 | 4 | 1 | 1 | 3 | 5 |
| *Herri Administrazioak gizon eta emakumeen arteko lanpostu berdinetako alokairu-aldeak zuzentzeko lanean hertsikiago jardun behar dute* | | | | | | | | | | | | | |
| Oso ados edo ados | 93 | 94 | 91 | 98 | 97 | 95 | 85 | 92 | 86 | 95 | 95 | 92 | 85 |
| Ez bata ez bestea | 3 | 2 | 4 | 1 | 2 | 1 | 5 | 5 | 7 | 2 | 4 | 5 | 8 |
| Ados ez edo batere ados ez | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| ED/EE | 3 | 4 | 5 | 1 | 1 | 3 | 10 | 3 | 6 | 2 | 0 | 2 | 6 |
| *Emakumeek seme-alabak eta adineko pertsonak zaintzeagatik lana lortu eta mantentzeko arazorik ez izateko lege zorrotzak eta kontrol gehiago egon behar dute* | | | | | | | | | | | | | |
| Oso ados edo ados | 89 | 92 | 83 | 95 | 94 | 93 | 87 | 86 | 84 | 87 | 88 | 87 | 81 |
| Ez bata ez bestea | 6 | 4 | 11 | 3 | 4 | 4 | 2 | 8 | 8 | 8 | 8 | 7 | 11 |
| Ados ez edo batere ados ez | 2 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | 1 | 2 | 3 | 3 | 2 | 2 | 1 |
| ED/EE | 3 | 3 | 5 | 1 | 2 | 2 | 9 | 3 | 5 | 2 | 2 | 4 | 6 |
| **GUZTIRA** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

ITURRIA: Soziologi Prospekzioetarako Kabinetea. EAEko biztanleen iritziak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoak. 2004ko martxoa.

Azkenik, Euskadin gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako legea behar dela uste dute gehienek: inkesta egin zaien %81 pertsonak aipatu legearen beharra dakusate. Inkesta horren emaitzek ere gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak era-

kutsi dituzte: emakumeetarik %85en iritziz, legea beharrezkoa da, eta gizonetarik %77ren aburuz.

**8.4. TAULA Gizon eta emakumeen arteko Berdintasunerako Legearen beharra Euskadin. Portzentaje bertikalak**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| Bai | 81 | 85 | 77 |
| Ez | 8 | 6 | 11 |
| ED/EE | 11 | 10 | 12 |
| **GUZTIRA** | **100** | **100** | **100** |

ITURRIA: Soziologi Prospekzioetarako Kabinetea. EAEko biztanleen iritziak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoak. 2004ko martxoa.

